**AKTEA/10**

# BERMEOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA
**(2025-04-08)**

| | |
|---|---|
| Batzarraren izaera: | Ohikoa |
| Deialdia | 1. deialdia |
| Data: | 2025-04-08 (Asteartea) |
| Lekua: | Udaletxe historikoko Osoko Bilkurako areto nagusia |
| Hasiera-ordua: | 08:31 |
| Amaiera-ordua: | 08:46 |
| Alkate-Presidentea: | NEMEH SHOMALY NADIA |
| Batzordekideak: | ETXEBARRIA TELLERIA ENDIKA<br>URIARTE ANASAGASTI VICTOR<br>ORTUZAR BUTRON XABIER<br>GABANTXO URIAGEREKA MIREN KARMELE<br>CARUEZO UGALDE MAITE |
| Bertaratu ez direnak: | |
| Idazkaria: | URIARTE LEJARRAGA JURDANA |



CSV: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/04/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/04/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/04/2025 15:35:45

DOCUMENTO: 20251221002
Datea: 09/04/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

**Aztergaiak**

1.- Aurreko akta irakurri eta onestea: 2025-03-25 TGB (09)

2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiakorik daukaten adieraztea.

3.- Bermeoko transformazio azpiestazioa eraberritzeko proiektuaren obra lizentzia ematea onartzea.

4.- Aritzatxuko kantinaren eta komunen emakida esleitzeko deialdiaren oinarriak onartzea.

5.- CIPF Zornotzako LHII eta Bermeoko Udalaren arteko hezkuntza lankidetza hitzarmena sinatzea onartzea.

6.- Centre Integral Ilerna FP eta Bermeoko Udalaren arteko hezkuntza lankidetza hitzarmena.

7.- Barakaldo LH eta Bermeoko Udalaren arteko hezkuntza lankidetza hitzarmena sinatzea onartzea.

8.- Txurdinaga LHII eta Bermeoko Udalaren arteko hezkuntza lankidetza hitzarmena sinatzea onartzea.

9.- Alkartasuna dantza taldearekin zuzeneko dirulaguntza hitzarmena sinatzea eta gastua onartzea.

10.- 72583709X NAN zenbakidun langilearen edoskitze lizentzia eta opor egunak ordezkatzea onartzea.

11.- 2025. urteko zaharren egoitzako mantenuko lan egutegia eta ordutegia aldatzea onartzea eta Gazte Informazio Zerbitzuko 2025eko lan egutegia eta ordutegia onartzea.

12.- 53/2025 epaiaz berri ematea.

13.- Alkatetza dekretuen berri emotea.

14.- Eskari eta itaunak



CSV: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/04/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/04/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/04/2025 15:35:45

DOCUMENTO: 20251221002
Datea: 09/04/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, batzarra hasi du eta Tokiko Gobernu Batzarreko kideek euren kargua onartu dute. Jarraian, deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaitza honakoa izan da:

## 1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA: 2025-03-25 TGB (09)

Bertaratutako batzarkideek 2025eko martxoaren 25eko 09/2025 akta irakurrita, aho batez, onartzea erabaki dute.

## 2.- BATZARKIDEEK GAI ZERRENDAKO PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIAKORIK DAUKATEN ADIERAZTEA.

Endika Etxebarriak gai zerrendako 9. puntuan "9.- Alkartasuna dantza taldearekin zuzeneko dirulaguntza hitzarmena sinatzea eta gastua onartzea" puntuan interes pertsonala daukala adierazi du.

## 3.- BERMEOKO TRANSFORMAZIO AZPIESTAZIOA ERABERRITZEKO PROIEKTUAREN OBRA LIZENTZIA EMATEA ONARTZEA.

### Gaia

Bermeoko transformazio azpiestazioa eraberritzeko proiektuaren obra lizentzia.

### Aurrekariak

Lehenengoa.- 2025eko urtarrilaren 2an, S.M.E. jaunak, Iberdrola taldeko I-de Redes Eléctricas Inteligentes SAU enpresaren izenean, Bermeoko transformazio azpiestazioa eraberritzeko proiektua aurkeztu zuen Bermeoko Udalean.

Bigarrena.- 2025eko otsailaren 14an, Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzatik Urdaibai Biosfera Erreserbako Zerbitzuaren txostena jasotzen da, non esaten den proiektua Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planera (EKZP) egokitzen dela.



CSV: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/04/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/04/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/04/2025 15:35:45

DOCUMENTO: 20251221002
Datea: 09/04/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Hirugarrena.- 2025eko martxoaren 25ean, udaleko ingurumen teknikariak txostena egin zuen.

Laugarrena.- 2025eko martxoaren 27an, udal arkitektoak txostena egin zuen.

Bosgarrena.- 2025eko martxoaren 27an, udaleko Urigintza teknikariak txostena egin zuen.

**Argudioak**

Lehenengoa.- Banaketa sarea

Eskatzailearen proiektuan adierazten den bezala, egungo STR BERMEO 30/13kVko banaketa azpiestazio transformatzailea da, 132/30kVko beste transformazio azpiestazio batetik nahiko urrun kokatua, eta, arrazoi horrengatik, 30kVko luzera handiko lineen bidez elikatu behar dena. Honi Wartsila enpresak inguruko 30kVko sarera injekta dezakeen kogenerazioa gehitzeak, kudeaketa elektrikoaren zailtzea dakar, bai energia aktiboa, bai energia erreaktiboa konpentsatzeko arazoak sortuz; hau da: inguruko bezeroentzako hornidura kalitatea murriztuz.

Egoera honi aurre egiteko, 30kVko sarea, eta, bereziki, egungo linea hornitzen duen Mungia-Euba zirkuitu bikoitzeko 30kVko linea hobetzeko, instalazioa handitu beharra dago, egungo 30kVko sarera, aurreko paragrafoan aipaturiko desorekak kudeatuko dituen potentzia elektronikoan oinarritzen den Flexible Power Link (FPL) sistema akoplatu ahal izateko.

Aurreko guztia lortzeko, egungo STRtik, hala FPL sistema, nola bere 30/0,69kVko potentzia transformatzaile elkartu berriak elikatu beharko dira, egungo 30kVko sistema, gelaxka trinkoko 2 eraikinetan trinkotuz. Era berean, hari loturiko kontrol zein babesak kokatzeko eraikin aurrefabrikatu bat ere montatuko dela dio proiektuak.

24/2013 Legeari dagokionez, abenduaren 26ko, 38. artikulua eta ondorengoak dira banaketa sistemak erregulatzen dituztenak.

***Artículo 38. Regulación de la distribución.***

*La actividad de distribución de energía eléctrica es aquélla que tiene por objeto la **transmisión de energía eléctrica desde las redes de transporte, o en su caso desde otras redes de distribución o desde la generación conectada a la propia red de distribución, hasta los puntos de consumo u***



CSV: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/04/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/04/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/04/2025 15:35:45

DOCUMENTO: 20251221002
Datea: 09/04/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

***otras redes de distribución** en las adecuadas condiciones de calidad con el fin último de suministrarla a los consumidores.*

***Los distribuidores serán los gestores de las redes de distribución** que operen. En aquellas Comunidades Autónomas donde exista más de un gestor de la red de distribución, la Comunidad Autónoma, en el ámbito de sus competencias, podrá realizar funciones de coordinación de la actividad que desarrollen los diferentes gestores.*

*Tendrán la consideración de **instalaciones de distribución todas las líneas, parques y elementos de transformación y otros elementos eléctricos de tensión inferior a 220 kV**, salvo aquéllas que, de acuerdo con lo previsto en el artículo 34, se consideren integradas en la red de transporte.*

*Asimismo, **se considerarán elementos constitutivos de la red de distribución todos aquellos activos de la red de comunicaciones, protecciones, control, servicios auxiliares, terrenos, edificaciones y demás elementos auxiliares, eléctricos o no, necesarios para el adecuado funcionamiento** de las redes de distribución, incluidos los centros de control en todas las partes y elementos que afecten a las instalaciones de distribución.*

*De la misma forma, **también se considerarán elementos constitutivos de la red de distribución los componentes de red de distribución plenamente integrados, incluidas las instalaciones de almacenamiento**, que serán aquellos que se utilizan para garantizar un funcionamiento seguro y fiable de la red de transporte y no a efectos de balance o de gestión de congestiones.*

***No formarán parte** de las redes de distribución los **transformadores de grupos de generación**, los **elementos de conexión de dichos grupos a las redes de distribución**, las **instalaciones de consumidores para su uso exclusivo**, ni las **líneas directas**. (…)*

Beste alde batetik, 1955/2000 Errege dekretua daukagu, zeinaren 38. artikuluak ondorengoa zehazten duen:

***38. artikulua***

*Tendrán la consideración de redes de distribución todas aquellas instalaciones eléctricas de tensión inferior a 220 kV salvo aquellas que, de acuerdo con lo previsto en el artículo 5 del presente Real Decreto, se consideren integradas en la red de transporte.*

*Así mismo se considerarán elementos constitutivos de la red de distribución todos aquellos activos de la red de comunicaciones, protecciones, control, servicios auxiliares, terrenos, edificaciones y demás elementos auxiliares, eléctricos o no, de destino exclusivo para el adecuado funcionamiento de las instalaciones específicas de las redes de distribución antes definidas, incluidos los centros de control en todas las partes y elementos que afecten a las instalaciones de distribución.*

*No formarán parte de las redes de distribución los transformadores de las centrales de generación, las*



CSV: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/04/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/04/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/04/2025 15:35:45

DOCUMENTO: 20251221002
Datea: 09/04/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*instalaciones de conexión de dichas centrales a las redes, las instalaciones de consumidores para su uso exclusivo, ni las líneas directas, sin perjuicio de lo establecido en la disposición adicional sexta del presente Real Decreto.*

Aurreko guztiagatik, banaketa sare baten aurrean gaudela ondoriozta genezake, 30kVko sistema oso urruti baitago artikuluak aipaturiko 220kVko sistematik. Energia elektrikoa banatzeko xedea garraio sareetatik edo, gure kasuan bezala, beste banaketa sistema batzuetatik (132/30kVko transformazio azpiestaziotik) edo banaketa sarera konektatutako beste sorkuntza puntuetatik kontsumo puntuetara edo beste banaketa sare batzuetara hornitzea litzateke.

Hori dela eta, banaketa sareen arauak aplikatu behar dira multzo osoari, aipaturiko kontrol edo babes helburudun eraikin aurrefabrikatua ere banaketa multzoaren barnean sartzen baita.

Bigarrena.- Baimena

Martxan jartze, moldatze, transmititze edo ixte baimenari dagokienez, 24/2013 Legearen 39. artikuluak, lege bereko 53. artikulura zein haren garapen xedapenetara bidaltzen gaitu.

***39. artikulua***

*La puesta en funcionamiento, modificación, transmisión y cierre definitivo de las instalaciones de distribución de energía eléctrica* ***estará sometida, con carácter previo, al régimen de autorizaciones establecido en el artículo 53 y en sus disposiciones de desarrollo****.*

Martxan jartzeko baimenak, zenbait baimen administratibo galdatzen ditu era berean, zeintzuk 24/2013 Legearen 52. artikuluan arautzen diren:

***53. artikulua***

***Para la puesta en funcionamiento de nuevas instalaciones de*** *transporte,* ***distribución****, producción, líneas directas, así como para infraestructuras eléctricas de las estaciones de recarga de vehículos eléctricos de potencia superior a 3.000 kW, contempladas en la presente ley o modificación de las existentes se requerirá de las siguientes autorizaciones administrativas:*

*a)* ***Autorización administrativa previa, que se tramitará con el anteproyecto de la instalación como documento técnico y, en su caso, conjuntamente con la evaluación de impacto ambiental,*** *según lo dispuesto en la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental, y*



CSV: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/04/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/04/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/04/2025 15:35:45

DOCUMENTO: 20251221002
Datea: 09/04/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

***otorgará a la empresa autorizada el derecho a realizar una instalación concreta en determinadas condiciones.***

*La autorización administrativa de instalaciones de generación no podrá ser otorgada si su titular no ha obtenido previamente los permisos de acceso y conexión a las redes de transporte o distribución correspondientes.*

*b)* ***Autorización administrativa de construcción****, que permite al titular realizar la construcción de la instalación cumpliendo los requisitos técnicos exigibles.* ***Para solicitarla, el titular presentará un proyecto de ejecución junto con una declaración responsable que acredite el cumplimiento de la normativa*** *que le sea de aplicación.*

***Para su resolución se deberán analizar los condicionados exclusivamente técnicos de aquellas*** *Administraciones Públicas, organismos o empresas que presten servicios públicos o de interés económico general, únicamente en lo relativo a bienes y derechos de su propiedad que se encuentren afectados por la instalación.*

*La tramitación y resolución de autorizaciones definidas en los párrafos a) y b) del apartado 1 del presente artículo podrán efectuarse de manera consecutiva, coetánea o conjunta.*

Aipatutako artikuluko a) zein b) atalei dagokienez, Industria Administrazioko Bizkaiko lurralde-ordezkariaren 2023ko otsailaren 8ko ebazpenaren bitartez, aurretiko administrazio baimena eta eraikuntzako administrazio baimena eman eta onura publikoko deklarazioa egin zitzaion STR Bermeo eraberritze proiektuaren instalazioari. Ondorengo hau ebatzi zuen aipaturiko organoak:

*Deklaratzea baimentzen den instalazio elektrikoa onura publikokoa dela. Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 56. artikuluak xedatutakoaren arabera, deklarazioak hauek dakartza berekin: ondasunak okupatu eta eraginpeko eskubideak eskuratu beharra, eta okupazioa, gainera, urgentziaz egin beharra. Deklarazioak, halaber, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 52. artikuluan presaz okupatzeko deklaraziorako ezartzen diren ondorioak dakartza, 53. artikuluan zehaztutako erregistro-ondorioekin.*

*Ebazpen hau ematen da 48/2020 Dekretuak xedatutakoaren arabera, eta baldintza orokor hauek kontuan hartuta:*

*1. Obrak egiteko, onartutako proiektua bete behar da, kasu bakoitzean eskatu eta baimentzen diren aldaketak eginda.*



CSV: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

| Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.<br>Kodea:<br>07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3 | Sinadurea eta datea<br>JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/04/2025<br>NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/04/2025<br>CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/04/2025 15:35:45 | DOCUMENTO: 20251221002<br>Datea: 09/04/2025<br>Lekua: Bermeon<br>Erregistro unidadea: Erregistro nagusia |
|---|---|---|

*2. Martxan jartzeko epea hiru urtekoa izango da, ebazpen hau ematen den egunetik aurrera.*

*3. Lanak amaitutakoan, instalazioen titularrak Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzari jakinarazi beharko dio lanen amaiera, behin betiko onarpena eman, eta abian jartzeko akta egiteko.*

*4. Obrak egiteko behar diren udal- eta probintzia-eskumeneko baimenak edo lizentziak eta nahitaezkoak diren bestelakoak eragotzi eta alde batera utzi gabe ematen da ebazpen hau, eta eskatzaileak nahitaez eskuratu beharko ditu baimen horiek guztiak. Era berean, hirugarrenen eskubideak kaltetu gabe emango da, jabetza-eskubidea salbu utzita.*

Hori dela eta, esan genezake 24/2013 Legeak eskatzen dituen martxan jartzeko baimena lortu aurretiko administrazio baimenak lortu direla.

1955/2000 Errege Dekretuari dagokionez, bestalde, VII. Titulua, eta, hain zuzen ere, 111.1. artikulua da energia elektrikoa ekoitzi, garraiatu eta banatzeko instalazioak eraikitzeko, aldatzeko, ustiatzeko, eskualdatzeko eta ixteko administrazio prozedurak titulu honen bitartez arautzen direla zehazten dituena, instalazio horien aprobetxamenduak autonomia erkidego bati baino gehiagori eragiten diotenean edo garraioa edo banaketa autonomia erkidego baten lurraldetik ateratzen denean. Hori dela eta, titulu hau ez litzateke aplikagarria.

Gainera, instalazioek bete beharreko zenbait baldintza logistikoren inguruan dihardu 1955/2000 Errege Dekretuak, haren 42. artikuluan instalazioek izan beharreko ekipamenduaren ezaugarriak arautzen baititu:

- Behar teknikoei erantzuteko ekipamendu egokia izatea.
- Potentzia erreaktiboa kontrolatzeko elementuak izatea, eta, hala badagokio, horien segurtasuna bermatzeko ekipamenduak.
- Banaketa sareen eragiketa prozedurak bete behar dituzte.
- Eskariari erantzuteko behar adina gaitasun izan beharko dute, zonaldeko hazkunde aurreikuspenak kontutan hartuta.

***42. artikulua***

*Los elementos integrantes de las instalaciones de la red de distribución tendrán un equipamiento*



CSV: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/04/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/04/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/04/2025 15:35:45

DOCUMENTO: 20251221002
Datea: 09/04/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*adecuado para poder atender a las necesidades técnicas requeridas, incluyendo en su caso los elementos de control de potencia reactiva, así como para garantizar la seguridad de las mismas, debiendo cumplir con los procedimientos de operación de las redes de distribución que se aprueben al respecto.*

*Las redes de distribución deberán ser dimensionadas con capacidad suficiente para atender la demanda teniendo en cuenta las previsiones de su crecimiento en la zona.*

Kasu honetan, sektoreko enpresa espezializatuenetako bat den heinean, 42. artikulua betetzen dela esan daiteke. Hain zuzen ere, proiektutik ondoriozta genezake ekipamendu egokia erabiliko dutela. Gainera, ezarriko den FPL sistema, bai potentzia aktiboa zein potentzia erreaktiboa konpentsatzeko jarriko da, eta hainbat kontrol metodo izango ditu: Control de Flujo de Potencia Activa; Control de Tensión Alterna; Control Híbrido. Banaketa sareak era berean kontutan hartuko dituztela ondoriozta genezake, eta zonaldearen aurreikuspenak kontuan harturiko proiektutzat jo genezake, beraien esanetan, kontsumitzaileentzako faboragarria den proiektua baita.

Hirugarrena.- Udal arkitektoaren txostena

Aurrekarietan ezarri bezala, udal arkitektoak martxoaren 27an egin zuen txostena, eta hura, Bermeoko transformazio azpiestazioa eraldatzeko Plan Bereziari erreferentzia eginez hasi zuen. Azken hau, 2024ko azaroaren 28ko Osoko Bilkuran onartu, eta 2025eko urtarrilaren 10ean BAOn argitaratu zen, non hirigintza antolamenduko datuak adierazi ziren:

| | |
|---|---|
| Sailkapena: | Lurzoru urbanizaezina |
| Kalifikazio Orokorra: | Z Azpiegitura eta zerbitzuen sistema |
| Kalifikazio xehatua: | Z.1-EZ Zerbitzuak instalazioak (elektrizitatea) |
| Azalera: | 8.600,00 $m^2$ |
| Gehienezko eraikigarritasuna: | 1.000 $m^2$ sestra gainetik |
| Gehienezko sestra gaineko eraikuntza-profila | 2 solairu (dagoen lursailaren mailaren sestraren gainetik) |
| Gehienezko sestra azpiko eraikuntza-profila | 2 solairu (dagoen lursailaren mailaren sestraren azpitik) |
| Eraikinen gehienezko altura: | 6 m (dagoen lursailaren mailarekiko) |



CSV: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/04/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/04/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/04/2025 15:35:45

DOCUMENTO: 20251221002
Datea: 09/04/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Udal arkitektoak, ondorengo hau aipatzen du bere txostenean:

*Plan Bereziak jasotzen du ez dagoela Plan Bereziari lotutako urbanizazio publikorik. Gainera, egin beharreko urbanizazio pribatuko obrak eraikuntzakoekin batera egingo direla, eta nahitaezkoa izango dela lursail osoan itxitura perimetrala egitea.*

*Eraikuntza-proiektuek BI-631 errepidearen ardura duen Bizkaiko Foru Aldundiko sailaren nahitaezko baimena lortu beharko dute, eta horietan guztietan Bizkaiko Foru Aldundiaren 112/2013 Foru Dekretuaren 27. artikulua bete beharko da, bereziki aireko zutoinak eta lineak lekuz aldatzen direnean edota kokapen berria ezartzen denean.*

*Eraikinei dagokienez, instalazioak kontrol-eraikin bat izango du, aurrefabrikatukoa (CIMC motakoa). Bertan lineen babes- eta kontrol-armairuak, transformadoreak, korronte alternoko eta zuzeneko zerbitzu osagarrien armairu konbinatua, artezle-baterien bi ekipo (125 Vcc-koak) eta telekontroleko armairua egongo dira. Eraikina solairu bakarrekoa izango da (4,20 m-ko altuera izango duena, gutxi gorabehera), plantan 4,20 metroko zabalera eta 13,30 metroko luzera izango du.*

*Horretaz gain, instalazioak beste bi eraikin berri izango ditu 30kV-ko gelaxka blindatuen barne-sistemarako, aurrefabrikatutako monoblokea (CIAT motakoa), solairu bakarrekoak izango dira, 40,35 m$^2$ inguruko azalera, 10,24 m inguruko luzera, 3,94 m-ko zabalera eta 4,20 m-ko altuera izango du eraikin bakoitzak.*

*Instalazioa osatzeko, FPL sistemaren kontrola gordetzeko edukiontzi-motako eraikin berri bat egingo da baita ere. Eraikin horrek solairu bakarra izango du, 29,72 m$^2$-ko azalera, gutxi gorabehera, 12,19 m-ko luzera, 2,44m-ko zabalera eta 2,09m-ko altuera izango ditu, gutxi gorabehera. Horrez gain, FPL hozteko sistemarako edukiontziak instalatuko dira.*

*Beraz, lau eraikin berri hauen azalera 166,30 m$^2$ ingurukoa izango da, eta haien altuera beti 6 metrotik behera egongo da, plan bereziak dioena betez. Aipatu behar da baita ere, instalazioak okupatzen duen azalera 1.000 metro kuadro baino gutxiagokoa dela.*

*Memoria, eranskinak (kalkulu elektrikoak, eremu magnetikoak, argiteria eta indarreko sistemak, aireztapena eta klimatizazioa, suteen kontrako babesa, obra zibila, hondakinen kudeaketa azterlana eta maila akustikoak), baldintza-agiria, aurrekontua (guztira*



CSV: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/04/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/04/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/04/2025 15:35:45

DOCUMENTO: 20251221002
Datea: 09/04/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*4.696.197,62 eurotakoa; 4.665.861,19 € ICIOa kalkulatzeko), planoak eta segurtasunari eta osasunari buruzko azterlana osatzen dute proiektua.*

Maria Eugenia Dorronsoro andreak idatzitako proiektuak ez du dagokion elkargo ofizialaren bisaturik; hala ere, udal arkitektoaren txostenak erreferentzia egiten die bai 1000/2010 Errege Dekretuaren 2. artikuluari, bai Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen 2. artikuluari, eta honela justifikatzen du elkargoaren ikus onetsi gabezia onartu ahal izatea:

*Lehen aipatu den moduan, eraikin berriak solairu bakarrekoak, eta eraikuntza aldetik garrantzi txikikoak eta teknikoki zailtasunik gabekoak izango dira (aurrefabrikatuak); gainera, bizitegi-izaerarik edo izaera publikorik ez dute izango (instalazioa erregimen abandonatuan ustiatuko da eta, beraz, modu iraunkorrean dauden langilerik gabe). Horregatik guztiagatik, proiektuak ez du zertan bisatuta egon behar.*

Kode teknikoari dagokionez, bestalde, Martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretura jotzen du, zeinak Eraikuntzaren Kode Teknikoa onartu zuen. Ondorengoa dio udal arkitektoak bere txostenean:

*Gorago aipatu den bezala, eraikuntza berriko obra izango da eraikuntza aldetik garrantzi txikikoa, teknikoki zailtasunik gabekoa (aurrefabrikatua), bizitegi-izaerarik edo izaera publikorik ez duena, solairu bakarrekoa, eta pertsonen segurtasunari eragiten ez diona (instalazioan ez dira modu iraunkorrean langileak egongo). Beraz, Eraikuntzaren Kode Teknikoa ez da nahitaez aplikatu behar; hala ere, beste araudi batzuen osagarri gisa aplikatzen da.*

Irisgarritasunari dagokionez, Eraikuntzako Kode Teknikoa ez litzateke aplikagarria izango, udal arkitektoak aipatu bezala salbuespenen barruan dagoelako. Hori dela eta, 20/1997 Legea litzateke aplikagarria. Gainera, 68/2000 Dekretua da irisgarritasun baldintza teknikoak arautzen dituena, aipatutako azken lege honetako baldintzetan. Honako hau dio udal arkitektoak irisgarritasunaren inguruan:

*Transformazio azpiestazioa azpiegitura eta zerbitzuen sistema da, jendeari zabalduta ez dagoena, eta, horregatik, industria-erabilerako instalazio gisa har daitekeena erabilera publikoko eraikina baino. Horregatik bakarrik publikora irekita egon daitezkeen guneetan*



CSV: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/04/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/04/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/04/2025 15:35:45

DOCUMENTO: 20251221002
Datea: 09/04/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*aplikagarria izango litzateke Dekretua (kasu honetan ez dago publikoari irekitako gunerik).*

*Dena den, kontrol-eraikinaren sarrera 1,60 metroko zabalera duen ate bikoitz batetik egiten da, eta barruan gelditzen den korridoreak 1,50 metroko zabalera librea du gutxienez (nahiz eta bertan dauden armairuek ateak irekita izan).*

*30kV-ko gelaxken eraikinak bi ate bikoitz ditu, sarbide bakoitza 1,50 metroko zabalerakoa.*

Suteen kontrako instalakuntzei dagokienez bestalde, ondorengoa dio udal arkitektoak:

*Goi-tentsioko instalazio elektrikoen baldintza teknikoei eta segurtasun-bermeei buruzko erregelamenduaren ITC - RAT 14 Jarraibide Tekniko Osagarria betez, instalakuntza sektorizatu egingo da, eta eraikin bakoitza modu independentean isolatuko, saihesteko sugarra sektoreen artean zabaltzea.*

*Horrela, ondorengo sute-sektoreak lortzen dira: kontrol-gela, 30 kV-ko gelaxka, eta FPL sistemaren kontrol-gela. Sektore horiek sute-arrisku txikia dute, dituzten material-motagatik eta okupazioagatik.*

*Sabaiko eta paretetako, eta zoruetako estalduren suarekiko erreakzio-mailak araudian ezarritakoa beteko du, $B_{FL}$-s2 edo egokiagoa zoruetan, eta C-s3d0 edo egokiagoa hormetan eta sabaietan. Nolanahi ere, eraikuntza-produktuak, hala nola harrizkoak direnak, zeramikazkoak, metalezkoak, morteroak, hormigoiak edo igeltsuak, A1 motakotakoak izango dira.*

*Zoru faltsuetan kokatutako produktuei dagokienez, erabiliko diren kable guztiak izango dira suteen ez-hedatzaileak, ke-isuri eta opakutasun murriztua dituztenak.*

*Industria-establezimenduetan suteen aurkako segurtasun-araudia onartzen duen abenduaren 3ko 2267/2004 Errege Dekretuaren I. eranskineko (Industria-establezimenduen ezaugarriak, suteen aurkako segurtasunari dagokionez) 2.2 taularen arabera (Egiturazko elementu euskarrien suarekiko egonkortasunari buruzkoa), C motako eraikin baterako eta berezko arrisku-maila baxua izanik, sotoko solairuetan R-60 da gutxieneko suarekiko egonkortasuna eta sestra gaineko solairuetan R-30.*

*Eraikinen egituraren suarekiko egonkortasuna R-120 (EF-120) izango da, beraz, araudiak*



CSV: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/04/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/04/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/04/2025 15:35:45

DOCUMENTO: 20251221002
Datea: 09/04/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*eskatzen duena baino handiagoa.*

*Itxitura mugatzaile guztietarako, arauak eskatzen du sutearen aurreko portaera ez izatea sute-eremuko egituraren suarekiko egonkortasuna baino txikiagoa (Industria-establezimenduetako suteen aurkako segurtasun-erregelamenduaren I. eranskinaren 5.1 epigrafea). Horrek esan nahi du R-60 (EF-60) eskatu behar dela sotoetan eta R-30 (EF-30) sestra gaineko solairuetan.*

*Eraikin berrietan, proiektuaren arabera, elementu-mugatzaileek 120 minutuko erresistentzia izango dute suarekiko, beraz araudiak eskatzen duena baino handiagoa.*

*Aretoen artean kableak igarotzeko baoak behar bezala zigilatuta geratuko dira, 120 minutuko erresistentzia-maila lortuko duen barrera baten bidez.*

*Sektoreen artean igarotzeko oinezkoentzako ate guztiek suarekiko $EI_2$ 90 (RF-90) erresistentzia izango dute, arauan eskatutakoa baino handiagoa. Sute-sektoreak beste sektore batzuekin komunikatzen dituzten irekigune guztiak itxita egongo dira sute-sektorearen suarekiko erresistentzia bera mantentzeko.*

*Okupatzaileen ebakuazioari dagokionez, ezin da ebakuazio-neurri berezirik eskatu; izan ere, azpiestazio eraldatzailea dagokion Operazioko Eskualde Zentrotik egiten da teleaginte bidez, eta bertan langilerik ez dago modu jarraian.*

*Nolanahi ere, ebakuazioak industria-establezimenduetako suteen aurkako segurtasun-erregelamenduaren (IESASE) II. eranskineko 6. puntuan eta EKTko DB-SI oinarrizko dokumentuko SI-3 atalean adierazitakoa bete behar du.*

*Ateen zabalera 0,80 metrokoa izango da, gutxienez.*

*IESASEren II. eranskineko 6.3 puntuan ebakuazio-ibilbideen gehieneko distantziei buruz adierazitakoa gailentzen zaio EKTk ezarritakoari. Azpiestazioaren ezaugarriengatik, eta 25 pertsona baino gutxiagoko okupazioa izanik, ebakuazio-ibilbideak ez du 50 m baino luzeagoa izan behar, irteera kopurua edozein dela ere. Eraikin berrien deskribapenean azaldu den moduan, eraikinek 13,30 metroko eta 10,50 metroko luzerak dituzte, beraz ebakuazio-ibilbideak betetzen dira.*

*Instalatuko den suteen aurkako babes-sistemak elementu hauek izango ditu: suteak*



CSV: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/04/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/04/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/04/2025 15:35:45

DOCUMENTO: 20251221002
Datea: 09/04/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*detektatzeko eta alarma jotzeko sistema eta sua itzaltzeko bitarteko osagarriak.*

*Eskuzko su-itzalgailuak jarriko dira azpiestazioko sute-sektore guztietan, erraz ikusteko lekuetan eta haiengana heltzeko zailtasunik gabeko guneetan. Sutea hasteko probabilitate handiena dagoela uste den tokietatik hurbil egongo dira, eta gehieneko ibilbide horizontalak, sute-sektoreko edozein puntutatik su-itzalgailuraino, 15 metro gaindituko ez dituen moduan banatu behar dira.*

*Instalaziorako aurreikusitako gutxieneko zuzkidura honako hau izango da:*

- *Kontrol-gelak: 5 kg-ko $CO_2$ itzalgailu 1 (89B eraginkortasuna)*
- *30kV-ko gelaxkak: 5 kg-ko $CO_2$ itzalgailu 1 (89B eraginkortasuna)*
- *Aire zabaleko parkea: ABC 50 kg-ko hauts lehorreko gurpilen gaineko itzalgailu mugikor bat (233B eraginkortasuna) transformadore bakoitzeko, transformadoreetatik gehienez 15 m-ra.*

*Larrialdietako argiztapen-sistema instalatuko da azpiestazioko sute-sektore guztietan, larrialdi-egoera egonez gero bertan egon daitezkeen langileak irteera bideak behar bezala ikus ditzaten ebakuatzeko orduan.*

*Ohiko edo larrialdiko irteera guztiak eta suteen aurka babesteko eskuzko bitartekoak behar bezala seinaleztatuta egon beharko dira.*

Jarraituz, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planaren inguruan (EKZP), Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzako Urdaibai Biosfera Erreserbako Zerbitzuak egindako txostenari egiten dio erreferentzia, ondorengoa zitatuz:

*IV.- Conclusiones*

*En atención a lo anteriormente expuesto, el Proyecto de ampliación de la STR Bermeo 13/30 kV, promovido por i-DE REDES ELECTRICAS INTELEGENTES, SAU, en relación a las actuaciones a realizar en el ámbito del Suelo No Urbanizable de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, se adapta a lo dispuesto en el apartado III del presente documento referente al PRUG.*

Azkenik, ingurumen ebaluazioaren inguruan ere dihardu, 21/2013 Legea, Ingurumen ebaluazioari buruzkoa; 10/2021 Legea, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena; eta,



CSV: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

| Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu. Kodea: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3 | Sinadurea eta datea: JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/04/2025 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/04/2025 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/04/2025 15:35:45 | DOCUMENTO: 20251221002 Datea: 09/04/2025 Lekua: Bermeon Erregistro unidadea: Erregistro nagusia |
|---|---|---|

STR azpiestazioa handitzeko plan bereziaren ingurumen dokumentu estrategikoa bete beharko direla esanez. Honako hau dio udal arkitektoak:

*Plan bereziaren ingurumen-dokumentu estrategikoak dio:*

> *"6. DESARROLLO PREVISIBLE DEL PLAN ESPECIAL*
>
> *(…)*
>
> *El proyecto de construcción de la ampliación de la STR Bermeo que se elaborará posteriormente, y tal como queda recogido en el apartado siguiente no supone afecciones significativas en el medio ambiente, pese a estar dentro de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai y por lo tanto no es previsible que se encuentre sometido a la evaluación ambiental de proyectos. Se incide en este apartado en que esta ampliación con la tecnología FPL evita la construcción de nuevas líneas, pues consigue gestionar la red de manera optimizada."*
>
> *"8. MOTIVACIÓN DE LA APLICACIÓN DEL PROCEDIMIENTO DE EVALUACIÓN AMBIENTAL SIMPLIFICADA*
>
> *(…)*
>
> *Con respecto a la necesidad de una futura tramitación ambiental del proyecto de ampliación de la subestación, no se trata de una ampliación que esté asociada a futuras líneas y por lo tanto no se cumple con el marco para someter a evaluación ambiental de proyectos que la normativa aplicable (Ley 21/2013 y Ley 10/2021) establece para este tipo de instalaciones. Tampoco se cumple con el requisito específico de alterar espacios naturales que presenten alguna regulación, ni directa ni indirecta, tal y como se ha comentado anteriormente, por lo que no se considera que el proyecto de ampliación necesite una evaluación ambiental posterior."*

*Proiektuaren jarduera ez dago sartuta Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen I. eranskinean (II. tituluko II. kapituluko 1. atalean araututako ingurumen-ebaluazio arrunta behar duten proiektuak) ezta II. eranskinean ere (II. tituluko II. kapituluko 2. atalean araututako ingurumen-ebaluazio sinplifikatua behar duten proiektuak). Ezta ere abenduaren 9ko 10/2021 Legeko (Euskadiko Ingurumen Administrazioarena) II.D (Ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta behar duten proiektuak) eta II.E (Ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua behar duten proiektuak) eranskinetan. Beraz, proiektuak ez du Ingurumen-inpaktuaren ebaluaziorik egin beharrik.*

Azkenik, ondorengo proposamena egiten du, nahiz eta baldintza gehigarri batzuk ere gehitzen dizkion:



CSV: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/04/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/04/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/04/2025 15:35:45

DOCUMENTO: 20251221002
Datea: 09/04/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*2025eko urtarrilaren 2an aurkeztutako proiektua bat dator aplikaziozkoa den hirigintza araudiarekin, beraz oker edo hutsik ezean, hirigintza ikuspuntutik ez dago eragozpenik eskatutako lanak baimentzeko. Obren iraupena 11 hilabetekoa izango dela aurreikusten da.*

Laugarrena.- Udaleko Ingurumen teknikariaren txostena.

2025eko martxoaren 25ean, Bermeoko Udaleko Ingurumen teknikariak txostena egin zuen eskatutako obra lizentzia emateko Ingurumen Eraginaren Ebaluazio prozeduraren betebeharra edo betebehar eza adieraziz. Honek erreferentzia egin zion 10/2021 Legearen, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena, II.E anexoari:

*10/2021 Legea, abenduko 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena*

*Anexo II.E. Proyectos que deben someterse al procedimiento de evaluación de impacto ambiental simplificada*

*Grupo E4. Industria energética*

*4.b. "Construcción de líneas para la transmisión de energía eléctrica con un voltaje igual o superior a 15 kV, que tengan una longitud igual o superior a 1 km, salvo que discurran íntegramente en subterráneo por suelo urbanizado, así como sus subestaciones asociadas"*

*Kasu honetan ez da lerro elektrikorik ezta azpi-estazio berririk eraikiko, baizik eta bakarrik indarrean dagoen azpi-estazio bat erreformatu eta handitu; beraz, ez denez epigrafe honen barruan sartzen, kasu honetan ez da Ingurumen Eraginaren Ebaluazio prozedurarik hasi behar.*

Gainera, azpiestazio honen kokapenaren inguruan ere mintzatu da, funtsezkoa baita; izan ere, udal teknikariaren arabera landa eremuan kokatzen den, eta, hortaz, lurzoru ez urbanizagarrian kokatzen den azpiestazioaren handitze erreforma honek Urdaibaiko PRUGa bete beharko du. Honen harira, honakoa da adierazitakoa:

*Horretarako, 2022ko maiatzaren 10ean espediente hau Urdaibaiko Patronatura bidali zen txostena emateko. 2025eko otsailaren 14an Urdaibaiko txostena jaso zen (Exp 22087), honako konklusioarekin:*

***III.I Consideraciones generales***

***Artículo 4.4.4.15 – Estaciones transformadoras eléctricas de superficie superior a 100 m2 D.3.3.***



CSV: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/04/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/04/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/04/2025 15:35:45

DOCUMENTO: 20251221002
Datea: 09/04/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*1.- Se trata de las instalaciones transformadoras eléctricas de superficie superior a 100m2*

*2.- El presente Plan sólo prevé la implantación de nueva planta para este tipo de instalaciones en el ámbito de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai en los suelos calificados como Zonas destinadas a soportar las infraestructuras y servicios de la comunidad de las Áreas de Sistemas _T4.IS_ a la entrada en vigor del mismo. No obstante, el presente Plan contempla, a través de la aprobación del correspondiente Plan Especial, de acuerdo con lo establecido en el Título V del presente Plan, la recalificación a la calificación señalada, se suelos que el presente Plan hubiera calificado como Zonas de Paisaje Rural de Transición de las Áreas de Interés Agroganadero y Campiña –T1.PRT-.*

***3.- Se permiten intervenciones de amplicación en toda la Supracategoría de Transición. Para llevar a cabo cualquier tipo de intervenciones existentes será precisa la aprobación del Plan Especial correspondiente de acuerdo a lo señalado al respecto en el Título V del presente Plan.***

***IV.- CONCLUSIONES***

*En atención a lo anteriormente expuesto,* ***el Proyecto de ampliación*** *de la STR BERMEO 13/30 kV, promovido por i-DE REDES INTELIGENTES, S.A.U., en relación a las actuaciones a realizar en el ámbito del Suelo No Urbanizable de la Reserva de la Biosfera,* ***se adapta a lo dispuesto en el apartado III del presente documento referente al PRUG.***

*Aipatutako Plan Berezi hori tramitatu egin da aparteko espediente baten (2022_IDA_ERA_0120). 2024ko azaroaren 28an Osoko Bilkurak Iberdrolako azpi-estazioa handitzeko Plan Berezia behin-betiko onartu zuen eta 2025eko urtarrilaren 10ean BAOn argitaratu zen.*

*Ondorioz, Ingurumenaren ikuspuntutik bete beharreko tramite guztiak bete dira.*

Bosgarrena.- Baimena emateko prozedura

Urigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeko 207 eta 210 artikuluek eta Urigintza Diziplina arautzen duen ekainaren 23ko 2187/ 1978 Errege Dekretuaren 3 eta 4 artikuluek xedatutakoari jarraituz, espedientearen tramitazioa indarrean dagoen araudiarekin bat dator. Era berean, eskaria bat dator ere hirigintza araudiarekin, udal arkitektoak 2025eko martxoaren 27an egindako txostenena aipatzen den bezala.

Kasu honetan, obra lizentzia eman beharra dago, 2/2006 Legeko 207.1 artikuluak ezartzen duen moduan. Baimena emateko prozedurari dagokionez, honela laburbildu daiteke:

a) Hasiera



CSV: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

| Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.<br>Kodea:<br>07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3 | Sinadurea eta datea<br>JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/04/2025<br>NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/04/2025<br>CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/04/2025 15:35:45 | DOCUMENTO: 20251221002<br>Datea: 09/04/2025<br>Lekua: Bermeon<br>Erregistro unidadea: Erregistro nagusia |
|---|---|---|

Prozedura interesdunak eskaturik hasiko da. Horretarako, eskabidea aurkeztu beharko da eta dagokion dokumentazio teknikoa erantsi.

Aurrekarietan esan bezala: *2025eko urtarrilaren 2an, S.M.E. jaunak, Iberdrola taldeko I-de Redes Eléctricas Inteligentes SAU enpresaren izenean, Bermeoko transformazio azpiestazioa eraberritzeko proiektua aurkeztu zuen Bermeoko Udalean.*

b) Instrukzioa

Baimena emon aurretik, udal zerbitzu teknikoek beharrezko txostenak egin beharko dituzte, eskatutako lizentzia hirigintzako legediarekin bat datorrela egiaztatzeko.

Prozeduraren instrukzioan zehar baimenaren eraginpeko beste administrazio publiko batzuek txostenak egitea derrigorrezkoa den kasuetan, udalak eskabidea aurkeztu dela jakinarazi beharko zaie, hilabeteko epean behar diren txostenak egin ditzaten, bere eskumenaren arabera. Hilabeteko epean txostenik ematen ez bada, udal baimena emateko prozedurarekin jarraitu ahal izango da. Kasu honetan, ez da beharrezkoa beste administrazio publiko batzuek txostenak egitea.

Kasu honetan, udal arkitektoak 2025eko martxoaren 27an egin zuen aldeko txostena; Ingurumen teknikariak martxoaren 25ean, eta Urigintza teknikariak, azkenik, idazki honen bitartez.

c) Ebazpena

Behar diren txostenak egin ondoren, organo eskudunak baimena emateari buruzko ebazpena emango du, espedientean dauden datu guztiak ikusi ondoren. Kasu honetan, alkateak izango du eskumena, hirigintza lizentziarako 2/2006 Legeko 209.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, TAOLeko 21.1.q) artikuluarekin bat etorriz, baina eskumen hori 2024/1886. zenbakidun Alkatetza Dekretuz Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetuta dauka.

Gainera, lizentzia ematen duen ebazpenak, gitxienez, honako hauek jaso beharko ditu: obra hasteko epea, egikaritzeko gehieneko epea eta sustatzaileari egotzi ahal zaizkion arrazoiren batengaitik obren exekuzioa etenda egon daitekeen gehieneko aldia, 2/2006 Legearen 215. artikuluak ezartzen dauen bezala.



CSV: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/04/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/04/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/04/2025 15:35:45

DOCUMENTO: 20251221002
Datea: 09/04/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Seigarrena.- Jakinarazpen epea

Araudi aplikagarriak ez badago berariaz jasotzen ordenantza baten bidez eta modu subsidiarioan, berariazko ebazpena jakinarazteko epea hiru hilabetekoa izango da gehienez, lizentzia-eskaera aurkezten denetik kontatzen hasita, udalak zuzentzeko edo hobetzeko errekerimendurik egin barik (2/2006 Legearen 210.7 artikulua).

Zazpigarrena.-Lizentzia

Obra lizentzia eskuratzeak egintza eta eragiketak burutzeko zilegitasuna ematen du, bai eta kasuan kasuko erabilerak ezarri eta garatzeko ere. Hala ere, ezin izango dira inolaz ere eskuratu, ez administrazioaren isiltasun positiboaren bidez, ez hirigintza-antolamenduarekin ez indarrean dagoen legeriarekin bat ez datozen ahalmen edo eskubideak, 2/2006 Legeko 211.1 artikuluak ezartzen duen moduan.

Lizentziak hirigintza-antolamenduko planeamenduarekin bat ez badatoz gerora, tresna barri bat onartzearen edo lizentzia emotean indarrean dagoena aldatzearen ondorioz, eta obrak oraindik amaitu ez badira, udalak arrazoituta adieraziko dau desadostasuna, eta, kautelazko neurri gisa, obrak berehala etetea erabaki beharko du, gehienez ere lau hilabetez.

Epe horren barruan, eta interesdunari entzun ondoren, lizentzia osorik edo zati bat ezeztatu ahal izango da, eta hasitako obrak nola eta zein baldintzatan amaitu ahal izango diren zehaztuko da, eragindako kalte-galerengatik zer kalte-ordain emongo den zehaztuta.

Zortzigarrena.-Lizentzia iraungitzea

Obrak hasi barik badaude edo amaitu barik badaude, edo sustatzaileari egotzi ahal zaion arrazoiren batengaitik etenda badaude, lizentzian ezarritako epeak urratuz, udalak lizentzia iraungi dela adierazi beharko du, aldez aurretik administrazio prozedura abiarazita eta interesdunari entzunda, eta hori guztia kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik barik (2/2006 Legearen 216. artikulua).

Egoera hori saihesteko, lizentzian aurreikusitako epeak luzatzeko eskatu ahal izango da, era arrazoituan. Hala ere, lizentzia iraungi dela adierazi ondoren, interesdunak berriro eskatu ahal izango du, edozein unetan.



CSV: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/04/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/04/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/04/2025 15:35:45

DOCUMENTO: 20251221002
Datea: 09/04/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

<u>Bederatzigarrena</u>.- Hondakinen kudeaketa

Hondakinen kudeaketari dagokionez, Eraikuntzako eta eraispeneko Hondakinen Ekoizpena eta Kudeaketa arautzen dituen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluak ezartzen duenez, obra-lizentziak lortzeko, udalek fidantza bat eratzeko eskatu beharko dute, obra handietatik datozen eraikuntza eta eraispen hondakinen kudeaketa egokia bermatzeko, hondakinen kudeaketaren kostuaren %120koa, baimenaren eskatzailea Erkidegoko Ingurumen Kudeaketa eta Auditoretzako Sistemari (EMAS) atxikitako erakundeen erregistroan inskribatuta dagoen kasuetan izan ezik.

Hondakinen kudeaketarako fidantza, 2025eko martxoaren 27an jarri zuten, 6.405,84 euroko zenbatekoan.

**Erabakia**

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

<u>LEHENENGOA</u>.- 2025eko urtarrilaren 2an, S.M.E. jaunak, Iberdrola taldeko I-de Redes Eléctricas Inteligentes SAU enpresaren izenean, Bermeoko transformazio azpiestazioa eraberritzeko aurkeztutako proiektuaren inguruko obra lizentzia emateko eskaria **onartzea**.

<u>BIGARRENA</u>.- Obra lizentziaren eraginkortasuna arkitektoaren txostenean ezarritako ondorengo baldintzak betetzera baldintzatzea:

- Lanak direla eta, espazio publikoan edo lur-azpian leudekeen instalazioetan kalteak eragingo balira, haien konponketa obra baimen hau eskatzen duenaren kontura izango da.
- Aurkeztutako eta onartutako proiektuari hertsiki lotuta egingo dira obrak. Obra baimena 2025eko urtarrilaren 2an aurkeztutako proiektuan oinarritzen da. Proiektuaren aldaketarik balego, udalari aldaketa horien egokitasuna zuzena den ala ez adieraztea eskatu beharko zaio. Hala egin ezean, obra baimenera egokitzen ez diren lanak ezkutuko jarduketatzat hartuko dira.
- Obrak gehienez sei hilabeteko (6) epean hasi beharko dira, lizentzia indarrean jartzen denetik zenbatzen hasita, eta obrak hasi eta hamaika (11) hilabete igaro



CSV: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/04/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/04/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/04/2025 15:35:45

DOCUMENTO: 20251221002
Datea: 09/04/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

baino lehen amaitu beharko dira. Sustatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik obrak geldirik egoteko epea ezin izango da hiru (3) hilabete baino luzeagoa izan.

Obren hasiera eta amaiera udalari jakinarazi beharko zaizkio. Obren hasiera baino lehen eskatutako fidantzen eta bisatu gabe falta den dokumentazioa aurkeztu beharko da udalean.

- Lanak hasi aurretik haien zuinketa egiazta dezaten eskatu beharko zaie Udal Zerbitzu Teknikoei.
- Obraren exekuzioak Bermeoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko xedapenak errespetatu beharko ditu.
- Obraren exekuzioak "Plan especial de la ampliación de la subestación de transformadora 30/13 kV - STR Bermeo" errespetatu beharko du.
- Obraren exekuzioa Plan Bereziak ezarritako kotara egokitu beharko da.
- Obraren exekuzioan Plan Bereziak ezarritako lerrokadurak errespetatu beharko dira.
- Obraren exekuzioan Plan Bereziak ezarritako eraikigarritasuna ezin izango da gainditu.
- Eraikuntza lanetan aldamua, edota garabia jartzea beharrezkoa balitz, aurretik udalari baimena eskatuko zaio, dagokion dokumentazioa aurkeztuz.
- EKTari dagokionez, martxoaren 17ko 314/2006 dekretua bete beharko da, beste araudien osagarri gisa.
- Lurzoru publikoan kontainerra jarri behar izanez gero, bide publikoaren okupaziorako lizentzia eskatuko da eta Udaltzainekin adostu beharko da kontainerraren kokapena.
- Azaroaren 8ko 31/1995 Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko legean oinarritutako eraikuntza lanetako segurtasun eta osasun arloan gutxieneko xedapenak ezartzen dituen 1627/1997 Errege Dekretuaren eta 337/2010 dekretuak eginiko moldaketak errespetatu beharko dira obrak dirauen artean eraikuntza obretarako segurtasun eta osasun baldintza minimoak ezartzerakoan.



CSV: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/04/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/04/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/04/2025 15:35:45

DOCUMENTO: 20251221002
Datea: 09/04/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

- Obrek dirauten bitartean, ondoko bideak zikintzea saihestuko da, batez ere obrako kamioientzako sarrera eta irteera.

HIRUGARRENA.- Obrak amaitutakoan, ondorengo ziurtagiriak aurkeztu beharko dira udaletxean:

- Instalazioei eta egindako lanei dagokien obra amaiera ziurtagiria eta likidazioa. Obra amaierako dokumentazioa obra-zuzendariak sinatua aurkeztu beharko da, baita dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsia, non besteak beste ageriko den, lanek indarrean dagoen araudiarekiko duten egokiera eta udalaren zuzenketa neurrien gauzatzea.
- 112/2012 Dekretuaren 6. artikuluan zehazten den dokumentazioa, Obra handietan sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakinak eta –materialak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko.

*1.– Obra handietan sortutako hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko, obraren zuzendaritza fakultatiboak sinaturiko txostena aurkeztu beharko du eraikuntza-hondakinen eta –materialen ekoizleak. Txosten hori 112/2012 Dekretuaren III. eranskinean zehaztutako ereduari jarraituz egin behar da, eta ingurumen-organoak akreditaturiko entitate independente batek egiaztatu behar du, hargatik eragotzi gabe xedapen iragankor bakarrean ezartzen dena.*

*2.– Aurreko ataletan aipatzen den azken txostenarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu behar da:*

*a) Lur eta arroka ez poluituak betelan bat egiteko erabiltzen badira, dagokion udalak betelana egiteko emandako lizentziaren kopia aurkeztu behar da edo, azpiegitura-lan linealen kasuan, organo eskudunaren baimenaren kopia, hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko araudian ezarritakoari jarraituz.*

*b) Hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzen duten ziurtagiriak, haiek egiteko baimena duten kudeatzaileek egindakoak edo*



CSV: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/04/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/04/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/04/2025 15:35:45

DOCUMENTO: 20251221002
Datea: 09/04/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*betelanetarako lur eta arroka ez poluituak jaso dituzten pertsona baimendu titularrek egindakoak.*

*c) Hondakin balorizatuen eta in situ erabilitako eraikuntza- eta eraispen-materialen erabileraren eta kantitatearen zinpeko aitorpena.*

- Instalatzaileak emandako ziurtagiria, instalazioaren egokitasunarena, Industria ordezkaritzak abalatua.
- Eraikinaren alta aitorpena hiri ondasunak zergapetzeko.
- Obra berriaren aitorpena.
- Obra amaierako dokumentazioa, memoria, likidazioa, planoak eta lau (4) argazki barne.
- ITC proiektua industria ordezkaritzan aurkeztu izanaren ziurtagiria.
- Aireztapen edota berokuntza sistemak abiaraztearen ziurtagiria.
- Kalitate kontrolaren dokumentazioa.
- Udal kartografia eguneratzeko planoa digitalki aurkeztua.

LAUGARRENA.- Jardunarekin hasi aurretik, jardueraren aurrekomunikazioa aurkeztu beharko du 10/2021 Euskal Legeko I.D anexoaren arabera.

BOSGARRENA.- Lizentzia hau edo haren kopia kautotua obrak egiten diren lekuan egongo da, udal zerbitzu teknikoen eskura, eta zerbitzu horrei ikuskapenetarako eta egiaztapenetarako sarbidea eman beharko zaie, 2/2006 Legearen 217. eta 218. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz.

SEIGARRENA.- Bermeoko transformazio azpiestazioa eraberritzeko aurkeztutako proiektuaren aurrekontua (ICIO) 4.665.861,19 eurokoa izango da.

ZAZPIGARRENA.- Lizentziaren titularraren kontura izango dira bidean eta kasuan kasuko zerbitzu publikoetan sortu daitezkeen kalteen edo ukipenen ondorioz beharrezkoak diren birjartzeak, baldin eta obrak gauzatzearen ondorio badira.

ZORTZIGARRENA.- Lizentzia hau emandakotzat joko da jabetza-eskubidea izan ezik eta hirugarrenaren eskubideari kalterik egin gabe, eta lizentziaren titularraren erantzukizun



CSV: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

| Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu. Kodea: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3 | Sinadurea eta datea<br>JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/04/2025<br>NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/04/2025<br>CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/04/2025 15:35:45 | DOCUMENTO: 20251221002<br>Datea: 09/04/2025<br>Lekua: Bermeon<br>Erregistro unidadea: Erregistro nagusia |
|---|---|---|

esklusibopean.

BEDERATZIGARRENA.- Baimen honek eragina izango du udalaren eta lizentziaren titularraren artean, baina ez ditu aldatzen haren eta gainerako pertsonen arteko egoera juridiko pribatuak.

HAMARGARRENA.- Errenta Sailari erabaki hau igortzea, dagozkion tasak eta tributuak likidatzeko.

HAMAIKAGARRENA.- Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea, bidezkoak diren errekurtsoak adieraziz.

## 4.- ARITZATXUKO KANTINAREN ETA KOMUNEN EMAKIDA ESLEITZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK ONARTZEA.

**Xedea**

Aritzatxuko kantinaren eta komunen emakida esleitzeko deialdiaren oinarriak onartzea.

**Aurrekariak**

Lehenengoa: Aritzatxuko kantinaren eta komunen emakida iraungita dago. Hori horrela, emakida berria esleitzeko deialdia egin behar da eta, horretarako, agintarien eskariz, lehiaketa bidezko deialdiaren oinarriak prestatu dira Idazkaritza Sailean.

Bigarrena: 2025eko martxoaren 28an, Errenta Saileko teknikariak txostena eman zuen, emakida dela eta, ordaindu beharreko kanonari buruz.

Hirugarrena: Udal arkitektoak espediente honen xede den jabari publikoko ondasunaren balorazioa eta hirigintza kalifikazioari buruzko txostena igorri zuen, 2025eko martxoaren 26ko dataz.

Laugarrena: 2025eko apirilaren 2an, udal kontu hartzaileak, 2025eko Udal Aurrekontu Orokorreko baliabide arrunten %10a zehazteko ziurtagiria eman zuen.

Bosgarrena: Egun berean, Idazkaritzako AOTak txosten juridikoa eman du.

**Argudioak**

Lehenengoa: Emakidaren xede den kantina eta komunak jabari publikoko ondasunak



CSV: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/04/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/04/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/04/2025 15:35:45

DOCUMENTO: 20251221002
Datea: 09/04/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

dira, zerbitzu publikoari atxikiak, ekainaren 23ko 1372/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duenaren 4. artikuluarekin bat etorriz.

Bigarrena: Proposatutako okupazio-izaera eta epea kontuan hartuta, jabari publikoko erabilera pribatiboa da, eta, beraz, dagokion emakida eman beharko da, 33/2003 Legearen 86. eta 93. artikuluetan eta 1372/1986 Errege Dekretuaren 78.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Hirugarrena: 33/2003 Legearen 93.1 artikuluak ezartzen duenez, jabari publikoko ondasunen gaineko emakidak lehiaketa bidez emango dira. Eta lehiaketa bidez esleitzeko irizpideak zehaztu, agintarien eskariz, kudeaketa kalitate-prezio erlazio onenean egin dadin.

Laugarrena: Kontuan izanda negozio juridiko hori dagokion herri-jabariko emakida egilestearen mende dagoela eta bere legeria propioa izango duela, hori izango da administrazio publikoen ondasunak arautzen dituena, eta, beraz, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen eremutik kanpo geratuko da, nahiz eta, lege-hutsuneen kasuan, kontratu-araudi publikoaren printzipioak aplikatu behar zaizkion.

Bosgarrena: Espediente honen xede diren emakidak ez ditu udalak finantzatuko, aitzitik, kontzesiodunek ordaindu beharreko urteko kanonaren mende daude.

Seigarrena: Emakiden oinarriak eta esleipena onartzeko ahalmenari dagokionez, Sektore Publikoen Kontratuak arautzen duen 9/2017 Legearen II. Xedapen Gehigarriaren 9. atalaren arabera, ahalmena alkateari dagokio, oinarrizko aurrekontua ez baita egungo udal aurrekontuko baliabide arrunten % 10 baino handiagoa.

Baina 2024ko apirilaren 24ko 1886 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez, ahalmena Tokiko Gobernu Batzarrarengan delegatu zen.

**Erabakia**

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: Aritzatxuko kantinaren eta komunen emakidak esleitzeko deialdiaren oinarriak onartzea.

BIGARRENA: Jabari publikoaren gaineko emakida esleitzeko deia egitea. Horretarako,



CSV: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/04/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/04/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/04/2025 15:35:45

DOCUMENTO: 20251221002
Datea: 09/04/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

dagokion iragarkia argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, udalaren webgunean eta iragarki-taulan. Eskaintzak aurkezteko epea 15 lanegunekoa izango da, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

HIRUGARRENA: Erabaki hau Idazkaritza, Ekonomia eta Berrikuntza Sailei helaraztea, jakinaren gainean egon daitezen dagozkion ondorioetarako.

LAUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabaki honen berri ematea.

## 5.- CIPF ZORNOTZAKO LHII ETA BERMEOKO UDALAREN ARTEKO HEZKUNTZA LANKIDETZA HITZARMENA SINATZEA ONARTZEA.

### Xedea

"Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako arreta" emateko titulua lortzeko ikasleen praktiketarako CIPF ZORNOTZAKO LHII eta Bermeoko Udaleko Sancti Spiritus zaharren egoitzaren arteko hezkuntza lankidetza hitzarmena onartzea.

### Aurrekariak

Lehenengoa: Lankidetza hitzarmen honen bidez ikasleei praktikak egiteko aukera ematen zaie eta Bermeoko Udalak ahal duen heinean, horrelako praktikak egiteko aukera ematea interesgarri ikusten du, formakuntza egokia lortzeko beharrezkoa baita.

Bigarrena: 2025eko martxoaren 13an zaharren egoitzan "Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako arreta" emateko titulua lortzeko ikasle biren praktika eskaria egin dute.

Hirugarrena: "CIPF ZORNOTZAKO LHII "Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako arreta" emateko prestakuntza titulua lortzeko 80 orduko praktikak dira

Laugarrena: Praktikak 2025eko apiriletik-maiatzera bitartean izango dira eta ikasle biek epe desberdinetan egingo dituzte.

Bosgarrena: Praktiketako ikaslea bat A.Y.M. (NIE Y97778495J) da eta beste ikaslea C.M.B. (NAN 60.404.722Y).

### Argudioak



CSV: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/04/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/04/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/04/2025 15:35:45

DOCUMENTO: 20251221002
Datea: 09/04/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Lehenengoa: Toki Erregimena arautzen duen 7/1985 Oinarri Legeak, honakoa xedatzen du bere 5. artikuluan:

> "Para el cumplimiento de sus fines y en el ámbito de sus respectivas competencias, las Entidades Locales, de acuerdo con la Constitución y las leyes, tendrán plena capacidad jurídica para adquirir, poseer, reivindicar, permutar, gravar o enajenar toda clase de bienes, celebrar contratos, establecer y explotar obras o servicios públicos, obligarse, interponer recursos establecidos y ejercitar las acciones previstas en las leyes".

Bigarrena: Eskumenen ganean, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak, bere 17. artikuluan, honakoa dino: "1.– Lege honetan eta aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren esparruan, udalerriek honako esparru material hauetan erabili ahal izango dituzte eskumen propioak: (…) 20) Kultura eta kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzea".

Hirugarrena: Aitatutako justifikatze memorian esaten dan moduan, Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoa arautzen dauen 40/2015 Legean hitzarmenei ezarritako baldintzak betetzen dira.

Laugarrena: Hitzarmena onartzeko ahalmenari jagokonez, Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dauzen 7/1985 Legearen 21.1.s) artikuluan jasotakoaren arabera, alkateari jagoko, ez dagoelako beste organo bateri emonda, baina 2024ko apirilaren 24ko 1886. zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazinoen ondorioz, ahalmen hori Tokiko Gobernu Batzarrarengan dago delegatuta

**Erabakia**

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: C.M.B. (NAN 60.404.722Y) zenbakidunaren ikaslearen eskaria onartzea:

- Hasiera data: 2025eko apirilak 14
- Bukaera data: 2025eko maiatzak 5
- Praktikaldiko orduak guztira: 80 ordu
- Saila: Gizarte Ongizate Saila



CSV: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/04/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/04/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/04/2025 15:35:45

DOCUMENTO: 20251221002
Datea: 09/04/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

BIGARRENA: A.Y.M. (NIE Y97778495J) zenbakidunaren ikaslearen eskaria onartzea:

- Hasiera data: 2025eko apirilak 22
- Bukaera data: 2025eko maiatzak 8
- Praktikaldiko orduak guztira: 80 ordu
- Saila: Gizarte Ongizate Saila

BIGARRENA: Gizarte Ongizate Sailari eta Berrikuntza, Gobernu Irekia eta Herritarren Arreta Sailari erabaki honen berri ematea.

HIRUGARRENA: Interesdunari erabakia jakinaraztea.

**6.- CENTRE INTEGRAL ILERNA FP ETA BERMEOKO UDALAREN ARTEKO HEZKUNTZA LANKIDETZA HITZARMENA.**

**Xedea**

Arreta zuzeneko titulua lortzeko ikasleen praktiketarako Centre Integral Ilerna FP eta Bermeoko Udaleko Sancti Spiritus zaharren egoitzaren arteko hezkuntza lankidetza hitzarmena onartzea.

**Aurrekariak**

Lehenengoa: Lankidetza hitzarmen honen bidez ikasleei praktikak egiteko aukera ematen zaie eta Bermeoko Udalak ahal duen heinean, horrelako praktikak egiteko aukera ematea interesgarri ikusten du, formakuntza egokia lortzeko beharrezkoa baita.

Bigarrena : 2025eko martxoaren 31ean zaharren egoitzan arreta zuzeneko titulua lortzeko ikasle baten praktika eskaria egin dute.

Hirugarrena: Centre Integral Ilerna FP zentruko arreta zuzeneko prestakuntza titulua lortzeko 410 orduko praktikak dira.

Laugarrena: Praktikak 2025eko apiriletik10etik –uztailaren 4ra izango dira.

Bosgarrena: Praktikak ikaslea F.H.A. (NAN 30.693.967F) da.

**Argudioak**



CSV: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/04/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/04/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/04/2025 15:35:45

DOCUMENTO: 20251221002
Datea: 09/04/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Lehenengoa: Toki Erregimena arautzen duen 7/1985 Oinarri Legeak, honakoa xedatzen du bere 5. artikuluan:

> "Para el cumplimiento de sus fines y en el ámbito de sus respectivas competencias, las Entidades Locales, de acuerdo con la Constitución y las leyes, tendrán plena capacidad jurídica para adquirir, poseer, reivindicar, permutar, gravar o enajenar toda clase de bienes, celebrar contratos, establecer y explotar obras o servicios públicos, obligarse, interponer recursos establecidos y ejercitar las acciones previstas en las leyes".

Bigarrena: Eskumenen ganean, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak, bere 17. Artikuluan, honakoa dino: "1.– Lege honetan eta aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren

esparruan, udalerriek honako esparru material hauetan erabili ahal izango dituzte eskumen propioak: (…) 20) Kultura eta kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzea".

Hirugarrena: Aitatutako justifikatze memorian esaten dan moduan, Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoa arautzen dauen 40/2015 Legean hitzarmenei ezarritako baldintzak betetzen dira.

Laugarrena: Hitzarmena onartzeko ahalmenari jagokonez, Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dauzen 7/1985 Legearen 21.1.s) artikuluan jasotakoaren arabera, alkateari jagoko, ez dagoelako beste organo bateri emonda, baina 2024ko apirilaren 24ko 1886. zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazinoen ondorioz, ahalmen hori Tokiko Gobernu Batzarrarengan dago delegatuta

**Erabakia**

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: F.H.A. (NAN 30.693.967F) zenbakidunaren ikaslearen eskaria onartzea:

- Hasiera data: 2025eko apirilak 10
- Bukaera data: 2025eko uztailak 7
- Praktikaldiko orduak guztira: 410 ordu



CSV: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/04/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/04/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/04/2025 15:35:45

DOCUMENTO: 20251221002
Datea: 09/04/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

- Saila: Gizarte Ongizate Saila

BIGARRENA: Gizarte Ongizate Sailari eta Berrikuntza, Gobernu Irekia eta Herritarren Arreta Sailari erabaki honen berri ematea.

HIRUGARRENA: Interesdunari erabakia jakinaraztea.

## 7.- BARAKALDO LH ETA BERMEOKO UDALAREN ARTEKO HEZKUNTZA LANKIDETZA HITZARMENA SINATZEA ONARTZEA.

### Xedea

BARAKALDO LH ikastetxearekin hezkuntza lankidetzarako hitzarmena sinatzea, administrazio eta finantzak zikloko ikaslearen praktikaldia.

### Aurrekariak

Bakarra: Lankidetza hitzarmen honen bidez ikasleei praktikak egiteko aukera ematen zaie eta Bermeoko Udalak, ahal duen heinean, horrelako praktikak egiteko aukera ematea interesgarri ikusten du, formakuntza egokia lortzeko beharrezkoa baita.

### Argudioak

Lehenengoa: Toki Erregimena arautzen duen 7/1985 Oinarri Legeak, honakoa xedatzen du bere 5. artikuluan:

> "Para el cumplimiento de sus fines y en el ámbito de sus respectivas competencias, las Entidades Locales, de acuerdo con la Constitución y las leyes, tendrán plena capacidad jurídica para adquirir, poseer, reivindicar, permutar, gravar o enajenar toda clase de bienes, celebrar contratos, establecer y explotar obras o servicios públicos, obligarse, interponer recursos establecidos y ejercitar las acciones previstas en las leyes".

Bigarrena: Eskumenen gainean, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak, bere 17. artikuluan, honakoa dio:

> "1.– Lege honetan eta aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren esparruan, udalerriek honako esparru material hauetan erabili ahal izango dituzte eskumen propioak: (…)



CSV: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/04/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/04/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/04/2025 15:35:45

DOCUMENTO: 20251221002
Datea: 09/04/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

1. Babes zibila, emergentziak, eta suteen prebentzioa eta itzaltzea antolatzea eta kudeatzea.
2. Espazio publikoetan bizikidetza-harremanak antolatzea eta kudeatzea.
3. Titulartasun publikoko zerbitzu, ekipamendu, azpiegitura eta instalazioen erabilera antolatzea eta kudeatzea.
4. Udaltzaingoa, trafikoa, bide-segurtasuna eta ibilgailuen aparkalekuak antolatzea eta kudeatzea, eta herritarren segurtasunean laguntzea.
5. Espazio publikoetan eta konkurrentzia publikoko leku eta establezimenduetan antolatutako ekintzetako segurtasuna antolatzea eta kudeatzea.
6. Konpainiako animalien eta arriskutsuak izan daitezkeen animalien arloa antolatzea eta kudeatzea.
7. Etxebizitzen plangintza, programazioa eta kudeaketa.
8. Ingurumenaren babesa eta garapen jasangarria modu osagarrian antolatzea, sustatzea, kudeatzea eta defendatzea, hiriguneetan kutsadura akustikoa, argiaren kutsadura eta airearen kutsaduraren aurkako babesa barne hartuta.
9. Hirigintzaren antolamendua, kudeaketa, exekuzioa eta diziplina.
10. Osasun publikoa sustatzea, kudeatzea, defendatzea eta babestea.
11. Erabiltzaile eta kontsumitzaileen defentsa eta babesa antolatzea eta kudeatzea.
12. Hilerrien eta hileta-zerbitzuen antolamendua, plangintza eta kudeaketa, baita osasun arloko kontrola ere.
13. Gizarte-zerbitzuak antolatzea, planifikatzea eta kudeatzea.
14. Diru-sarreren bermea eta gizarteratzea antolatzea, programatzea eta kudeatzea.
15. Zerbitzuak antolatzea, kudeatzea, ematea eta kontrolatzea hiri-erabilerako uraren ziklo integralean. Honako hauek daude barne hartuta: uraren goi-hornidura; uraren behe-hornidura; saneamendua edo biztanleguneetako hondakin-uren eta euri-uren bilketa, eta hiriko hondakin-uren arazketa.
16. Argiteria publikoa, bide-garbiketa, biztanle-guneetako sarbideak, kale-zoladura eta parkeak eta lorategiak antolatzea eta kudeatzea, eta zerbitzu horiek ematea.



CSV: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/04/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/04/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/04/2025 15:35:45

DOCUMENTO: 20251221002
Datea: 09/04/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

17. Udal-hondakinak edo hiri-hondakin solidoak bildu eta tratatzeko zerbitzuak antolatzea, kudeatzea, ematea eta kontrolatzea, eta hondakin gutxiago sortzeko plangintza, programazioa eta diziplina ezartzea.
18. Bidaiarien hiri barruko garraio publikoa garraiobidea edozein dela antolatzea, planifikatzea, programatzea, kudeatzea eta sustatzea, eta horien inguruko diziplina ezartzea, betiere garraioa udalerriaren barruan egiten bada osorik.
19. Kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak kudeatzea.
20. Kultura eta kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzea.
21. Udal-ondare historikoa babestea eta kontserbatzea, eta babes-plan bereziak eta katalogoak egitea eta onartzea.
22. Tokiko turismoa sustatzea eta kudeatzea.
23. Irakaskuntzaren programazioa egiten eta derrigorrezko eskolatze-aldia betetzeko zaintzan parte hartzea, bai eta haur-hezkuntzako, lehen hezkuntzako eta hezkuntza bereziko ikastetxe publikoen eraikinak kontserbatzea, mantentzea eta zaintzea ere. Era berean, hezkuntza-administrazioari laguntzea, ikastetxe publiko berriak egiteko behar dituen orubeak aurkitzen.
24. Zerbitzu-jarduerak antolatzea eta kudeatzea.
25. Tokiko ekonomia- eta gizarte-garapena, eta tokiko enplegu-planak edo -politikak.
26. Euskararen erabilera sustatzeko udal-planak idatzi, onartu eta kudeatzea, lege honen 7. artikuluan xedatutakoa gorabehera.
27. Genero-berdintasunaren eta ekitatea sustatzearen arloko politikak antolatzea eta kudeatzea.
28. Udal-ondarea kudeatzea eta ondare horren erabilera, zertarakoa, kontserbazioa eta mantentze-lana arautzea, betiere foru-araudiarekin bat.
29. Hondartza, laku eta mendietan egiten diren jarduerak eta erabilerak antolatzea, kudeatzea eta zaintzea, arlo horretan lurralde historikoek dituzten eskumenak eragotzi gabe. Hondartzetarako sarbideak antolatzea eta haien garbiketa-zerbitzua ematea.



CSV: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/04/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/04/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/04/2025 15:35:45

DOCUMENTO: 20251221002
Datea: 09/04/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

30. Herritarren partaidetza, gardentasuna, gobernu ona bultzatzeko eta teknologia berriak eskueran izateko azpiegiturak antolatzea eta kudeatzea. Administrazio elektronikoa, prozesuen arrazionalizazioa eta sinplifikazioa. Batez ere, herritarrek informazioaren teknologiak eta komunikazioak modu efiziente eta jasangarrian erabil ditzaten bultzatuko dute, beren udal-mugartean.
31. Udalerriarenak diren herri barruko bide publikoak eta baserri-bideak antolatzea eta kudeatzea (kontserbatzea eta mantentzea barne).
32. Udalerriko bideetan, pertsona, ibilgailu motordun zein bestelako eta animalien mugikortasuna eta irisgarritasuna nahiz pertsona eta salgaien garraioa antolatzea, kudeatzea, sustatzea eta diziplina-modua zehaztea; horretarako, beharrezko iritzitako baliabide materialak, teknikoak eta giza baliabideak jarri ahal izango dituzte.
33. Establezimendu publikoak eta jolas-jarduerak antolatzea eta kudeatzea.
34. Barne-merkataritza antolatzea eta kudeatzea. Zehatzago esanda, merkatu, hornidura-merkatu, azoka, lonja, hiltegi eta kalez kaleko merkataritza antolatzea eta kudeatzea. Hor sartzen dira, era berean, txikizkako merkataritza eta merkataritzako ekipamendu handiak planifikatzea eta antolatzea, hirigintza-antolamenduko irizpideei eta lurzoruaren arrazoizko erabilerari erantzunez, bai eta ibilgailuak eta bestelako salgaiak espazio publikoetan salerostearen erregulatzea, ikuskatzea eta arlo horretako zehapen-ahalmena.
35. Immigrazio alorrean gizarteratze-politikak kudeatzea, atzerritartasunaren inguruko legeriarekin bat etorrita eta erakunde autonomikoekin lankidetzan.
36. Gazteria-politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea.
37. Garapenerako lankidetza alorreko politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea."

<u>Hirugarrena</u>: Aitatutako justifikatze memoriaren arabera, Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoa arautzen duen 40/2015 Legean hitzarmenei ezarritako baldintzak betetzen dira, baina ez da jasotzen hitzarmenean zehazten den jarduna udalaren zein ahalmenetan oinarritzen den, ez dira zehazten ez betetzeen ondorioak ezta hitzarmenaren jarraipena egiteko modua, 40/2015 Legearen 49. artikuluko b) e) eta f) atalek adierazi bezala.



CSV: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/04/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/04/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/04/2025 15:35:45

DOCUMENTO: 20251221002
Datea: 09/04/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Laugarrena: Hitzarmena onartzeko ahalmenari dagokionez, Toki Erregimena arautzen duen 7/1985 Oinarri Legearen 21.1.s) artikuluan jasotakoaren arabera, hitzarmena sinatzeko ahalmena alkateari dagokio, ez dagoelako beste organo bateri emonda, baina 2024ko apirilaren 24ko 1886. zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioen ondorioz, ahalmen hori Tokiko Gobernu Batzarrarengan dago delegatuta. Onarpen hau hitzarmena sinatu aurretik egin behar da.

**Erabakia**

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: BARAKALDO LH ikastetxeko ikaslearen eskaerak onartzea:

- Ikaslea: A.A.L. Y2252290Y AIZ zenbakiduna
- *Hasiera data: 2025eko maiatzak 5*
- *Bukaera data: 2025eko maiatzak 26*
- *Praktikaldiko orduak: 112 ordu*
- *Kirol Saila*

BIGARRENA: BARAKALDO LH ikastetxearen eta Bermeoko Udalaren arteko Hezkuntza-lankidetza hitzarmena onartzea.

HIRUGARRENA: Kirol Sailari eta Berrikuntza Sailari erabaki honen berri ematea, praktikaldia hasi aurretik ikaslearentzako lanerako beharrezko baliabideak prestatzeko.

LAUGARRENA: Interesdunari erabakia jakinaraztea.

**8.- TXURDINAGA LHII ETA BERMEOKO UDALAREN ARTEKO HEZKUNTZA LANKIDETZA HITZARMENA SINATZEA ONARTZEA.**

**Xedea**

TXURDINAGA LHII ikastetxearekin hezkuntza lankidetzarako hitzarmena sinatzea, administrazio eta finantzak zikloko ikasleen praktikaldia.

**Aurrekariak**



CSV: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/04/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/04/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/04/2025 15:35:45

DOCUMENTO: 20251221002
Datea: 09/04/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Bakarra: Lankidetza hitzarmen honen bidez ikasleei praktikak egiteko aukera ematen zaie eta Bermeoko Udalak, ahal duen heinean, horrelako praktikak egiteko aukera ematea interesgarri ikusten du, formakuntza egokia lortzeko beharrezkoa baita.

**Argudioak**

Lehenengoa: Toki Erregimena arautzen duen 7/1985 Oinarri Legeak, honakoa xedatzen du bere 5. artikuluan:

> “Para el cumplimiento de sus fines y en el ámbito de sus respectivas competencias, las Entidades Locales, de acuerdo con la Constitución y las leyes, tendrán plena capacidad jurídica para adquirir, poseer, reivindicar, permutar, gravar o enajenar toda clase de bienes, celebrar contratos, establecer y explotar obras o servicios públicos, obligarse, interponer recursos establecidos y ejercitar las acciones previstas en las leyes”.

Bigarrena: Eskumenen gainean, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak, bere 17. artikuluan, honakoa dio:

> “1.– Lege honetan eta aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren esparruan, udalerriek honako esparru material hauetan erabili ahal izango dituzte eskumen propioak: (…)
>
> 1. Babes zibila, emergentziak, eta suteen prebentzioa eta itzaltzea antolatzea eta kudeatzea.
> 2. Espazio publikoetan bizikidetza-harremanak antolatzea eta kudeatzea.
> 3. Titulartasun publikoko zerbitzu, ekipamendu, azpiegitura eta instalazioen erabilera antolatzea eta kudeatzea.
> 4. Udaltzaingoa, trafikoa, bide-segurtasuna eta ibilgailuen aparkalekuak antolatzea eta kudeatzea, eta herritarren segurtasunean laguntzea.
> 5. Espazio publikoetan eta konkurrentzia publikoko leku eta establezimenduetan antolatutako ekintzetako segurtasuna antolatzea eta kudeatzea.
> 6. Konpainiako animalien eta arriskutsuak izan daitezkeen animalien arloa antolatzea eta kudeatzea.
> 7. Etxebizitzen plangintza, programazioa eta kudeaketa.



CSV: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/04/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/04/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/04/2025 15:35:45

DOCUMENTO: 20251221002
Datea: 09/04/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

8. Ingurumenaren babesa eta garapen jasangarria modu osagarrian antolatzea, sustatzea, kudeatzea eta defendatzea, hiriguneetan kutsadura akustikoa, argiaren kutsadura eta airearen kutsaduraren aurkako babesa barne hartuta.
9. Hirigintzaren antolamendua, kudeaketa, exekuzioa eta diziplina.
10. Osasun publikoa sustatzea, kudeatzea, defendatzea eta babestea.
11. Erabiltzaile eta kontsumitzaileen defentsa eta babesa antolatzea eta kudeatzea.
12. Hilerrien eta hileta-zerbitzuen antolamendua, plangintza eta kudeaketa, baita osasun arloko kontrola ere.
13. Gizarte-zerbitzuak antolatzea, planifikatzea eta kudeatzea.
14. Diru-sarreren bermea eta gizarteratzea antolatzea, programatzea eta kudeatzea.
15. Zerbitzuak antolatzea, kudeatzea, ematea eta kontrolatzea hiri-erabilerako uraren ziklo integralean. Honako hauek daude barne hartuta: uraren goi-hornidura; uraren behe-hornidura; saneamendua edo biztanleguneetako hondakin-uren eta euri-uren bilketa, eta hiriko hondakin-uren arazketa.
16. Argiteria publikoa, bide-garbiketa, biztanle-guneetako sarbideak, kale-zoladura eta parkeak eta lorategiak antolatzea eta kudeatzea, eta zerbitzu horiek ematea.
17. Udal-hondakinak edo hiri-hondakin solidoak bildu eta tratatzeko zerbitzuak antolatzea, kudeatzea, ematea eta kontrolatzea, eta hondakin gutxiago sortzeko plangintza, programazioa eta diziplina ezartzea.
18. Bidaiarien hiri barruko garraio publikoa garraiobidea edozein dela antolatzea, planifikatzea, programatzea, kudeatzea eta sustatzea, eta horien inguruko diziplina ezartzea, betiere garraioa udalerriaren barruan egiten bada osorik.
19. Kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak kudeatzea.
20. Kultura eta kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzea.



CSV: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/04/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/04/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/04/2025 15:35:45

DOCUMENTO: 20251221002
Datea: 09/04/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

21. Udal-ondare historikoa babestea eta kontserbatzea, eta babes-plan bereziak eta katalogoak egitea eta onartzea.
22. Tokiko turismoa sustatzea eta kudeatzea.
23. Irakaskuntzaren programazioa egiten eta derrigorrezko eskolatze-aldia betetzeko zaintzan parte hartzea, bai eta haur-hezkuntzako, lehen hezkuntzako eta hezkuntza bereziko ikastetxe publikoen eraikinak kontserbatzea, mantentzea eta zaintzea ere. Era berean, hezkuntza-administrazioari laguntzea, ikastetxe publiko berriak egiteko behar dituen orubeak aurkitzen.
24. Zerbitzu-jarduerak antolatzea eta kudeatzea.
25. Tokiko ekonomia- eta gizarte-garapena, eta tokiko enplegu-planak edo -politikak.
26. Euskararen erabilera sustatzeko udal-planak idatzi, onartu eta kudeatzea, lege honen 7. artikuluan xedatutakoa gorabehera.
27. Genero-berdintasunaren eta ekitatea sustatzearen arloko politikak antolatzea eta kudeatzea.
28. Udal-ondarea kudeatzea eta ondare horren erabilera, zertarakoa, kontserbazioa eta mantentze-lana arautzea, betiere foru-araudiarekin bat.
29. Hondartza, laku eta mendietan egiten diren jarduerak eta erabilerak antolatzea, kudeatzea eta zaintzea, arlo horretan lurralde historikoek dituzten eskumenak eragotzi gabe. Hondartzetarako sarbideak antolatzea eta haien garbiketa-zerbitzua ematea.
30. Herritarren partaidetza, gardentasuna, gobernu ona bultzatzeko eta teknologia berriak eskueran izateko azpiegiturak antolatzea eta kudeatzea. Administrazio elektronikoa, prozesuen arrazionalizazioa eta sinplifikazioa. Batez ere, herritarrek informazioaren teknologiak eta komunikazioak modu efiziente eta jasangarrian erabil ditzaten bultzatuko dute, beren udal-mugartean.
31. Udalerriarenak diren herri barruko bide publikoak eta baserri-bideak antolatzea eta kudeatzea (kontserbatzea eta mantentzea barne).
32. Udalerriko bideetan, pertsona, ibilgailu motordun zein bestelako eta animalien mugikortasuna eta irisgarritasuna nahiz pertsona eta salgaien garraioa antolatzea, kudeatzea, sustatzea eta diziplina-



CSV: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/04/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/04/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/04/2025 15:35:45

DOCUMENTO: 20251221002
Datea: 09/04/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

modua zehaztea; horretarako, beharrezko iritzitako baliabide materialak, teknikoak eta giza baliabideak jarri ahal izango dituzte.

33. Establezimendu publikoak eta jolas-jarduerak antolatzea eta kudeatzea.
34. Barne-merkataritza antolatzea eta kudeatzea. Zehatzago esanda, merkatu, hornidura-merkatu, azoka, lonja, hiltegi eta kalez kaleko merkataritza antolatzea eta kudeatzea. Hor sartzen dira, era berean, txikizkako merkataritza eta merkataritzako ekipamendu handiak planifikatzea eta antolatzea, hirigintza-antolamenduko irizpideei eta lurzoruaren arrazoizko erabilerari erantzunez, bai eta ibilgailuak eta bestelako salgaiak espazio publikoetan salerostearen erregulatzea, ikuskatzea eta arlo horretako zehapen-ahalmena.
35. Immigrazio alorrean gizarteratze-politikak kudeatzea, atzerritartasunaren inguruko legeriarekin bat etorrita eta erakunde autonomikoekin lankidetzan.
36. Gazteria-politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea.
37. Garapenerako lankidetza alorreko politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea."

Hirugarrena: Aitatutako justifikatze memoriaren arabera, Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoa arautzen duen 40/2015 Legean hitzarmenei ezarritako baldintzak betetzen dira, baina ez da jasotzen hitzarmenean zehazten den jarduna udalaren zein ahalmenetan oinarritzen den, ez dira zehazten ez betetzeen ondorioak ezta hitzarmenaren jarraipena egiteko modua, 40/2015 Legearen 49. artikuluko b) e) eta f) atalek adierazi bezala.

Laugarrena: Hitzarmena onartzeko ahalmenari dagokionez, Toki Erregimena arautzen duen 7/1985 Oinarri Legearen 21.1.s) artikuluan jasotakoaren arabera, hitzarmena sinatzeko ahalmena alkateari dagokio, ez dagoelako beste organo bateri emonda, baina 2024ko apirilaren 24ko 1886. zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioen ondorioz, ahalmen hori Tokiko Gobernu Batzarrarengan dago delegatuta. Onarpen hau hitzarmena sinatu aurretik egin behar da.

## Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:



CSV: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/04/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/04/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/04/2025 15:35:45

DOCUMENTO: 20251221002
Datea: 09/04/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

<u>LEHENENGOA:</u> Txurdinaga LHII ikastetxeko ikasleen eskaerak onartzea:

- Ikasleak:
  - ✓ A.V.S. 73482858C NAN zenbakiduna
  - ✓ I.E.S. 79437298J NAN zenbakiduna
- *Hasiera data: 2025eko maiatzak 5*
- *Bukaera data: 2025eko maiatzak 23*
- *Praktikaldiko orduak: 128 ordu*
- *Saila: Behargintza*

<u>BIGARRENA</u>: TXURDINAGA LHII ikastetxearen eta Bermeoko Udalaren arteko Hezkuntza-lankidetza hitzarmena onartzea.

<u>HIRUGARRENA</u>: Behargintzari eta Berrikuntza Sailari erabaki honen berri ematea, praktikaldia hasi aurretik ikasleentzako lanerako beharrezko baliabideak bideratzeko.

<u>LAUGARRENA</u>: Interesdunei erabakia jakinaraztea.

Endika Etxebarria batzar gelatik irten da.

## 9.- ALKARTASUNA DANTZA TALDEAREKIN ZUZENEKO DIRULAGUNTZA HITZARMENA SINATZEA ETA GASTUA ONARTZEA.

### Xedea

Alkartasuna Dantza taldeko 2025 urteko plangintza aurrera eramateko, Alkartasuna Dantza taldearekin zuzeneko dirulaguntza bideratzeko hitzarmena sinatzea eta gastua onartzea.

### Aurrekariak

<u>Lehenengoa</u>: Bermeoko Udalak, 2022ko abenduaren 19an izandako Osoko Bilkuran, udalak eskaintzen dituen dirulaguntzen 2023-2025 urteetarako Plangintza Estrategikoa onartu du.

<u>Bigarrena</u>: 2025 urteko aurrekontuan, Alkartasuna dantza taldea elkartearen aldeko



CSV: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/04/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/04/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/04/2025 15:35:45

DOCUMENTO: 20251221002
Datea: 09/04/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

dirulaguntza nominatiboa jasotzen da, 3.3. ardatzaren barruan (Bermeo bizia). Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 28.1 artikuluaren arabera, dirulaguntza nominatiboak bideratzeko hitzarmena sinatu behar da.

Hirugarrena: Alkartasuna dantza taldearen programarekin lortu nahi diren helburuak, gure herriko kultura, nortasuna eta jaien zabalkundea sustatzea; Euskal folklorea eta kultura zabaltzeko izaera publikoko ekintzen garapena eta presentzia lortzea eta sorkuntza eta zabalkunde artistikoa bultzatzea dira.

Laugarrena: 2025eko otsailaren 24an, Kulturako teknikariak justifikatze memoria egin du.

Bosgarrena: 2025eko martxoaren 13an, Idazkaritza AOT-k txosten juridikoa egin du.

Seigarrena: 2025eko martxoaren 27an, kontuhartzaileak 66/2025 zenbakidun adostasuneko fiskalizazio txostena egin du, oharrekin.

**Argudioak**

Lehenengoa: Gastuak, beharrezko atxekipena dauka (RC 2025/000214)

Bigarrena: Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 5. artikulua, Toki Erregimenaren Testu Bateratua onartzen duen 781/1986 EDLaren 111. artikulua, Herri Administrazioen Prozedura Administratibo Orokorra onartzen duen 39/2015 Legearen 86. artikulua, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak, bere 28.1 artikuluan, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak bere 6. artikuluan eta Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoa arautzen duen 40/2015 Legearen 47. artikuluan eta hurrengokoetan xedatutakoak hartu dira kontutan.

Hirugarrena: Hitzarmena onartzeko ahalmenari dagokionez, Toki Erregimena arautzen duen 7/1985 Oinarri Legearen 21.1. artikuluaren f) eta s) ataletan jasotakoaren arabera, alkateari dagokio baina 2024ko apirilaren 24ko 1886. zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioen ondorioz, ahalmen hori Tokiko Gobernu Batzarrarengan dago delegatuta.

**Erabakia**

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: Alkartasuna Dantza taldearen 2025 urteko plangintza aurrera eramateko,



CSV: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/04/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/04/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/04/2025 15:35:45

DOCUMENTO: 20251221002
Datea: 09/04/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Alkartasuna Dantza Taldearekin hitzarmena sinatzea onartzea.

BIGARRENA: aurrekontuko 00400-33410-481.01.06 partida ekonomikoaren pentzura, Alkartasuna Dantza Taldeari 10.500 €-ko gastua onartzea eta esleitzea (AD), hitzarmenean agertzen den programako gastuentzat.

HIRUGARRENA: Ordaintzeko modua honakoa izango da: hitzarmena sinatu ondoren, zenbatekoaren %80a, hau da, 8.400 € (O) eta %20a, hau da, 2.100 €, dirulaguntza behar den moduan justifikatu ondoren.

LAUGARRENA: Euskeraren ordenantzak xedatzen dituen kultura, kirol, aisialdi elkarte, musika talde eta bestelakoei dirulaguntzak emateko baldintzak bete behar ditu dirulaguntzaren jasotzaileak.

BOSGARRENA: Interesdunari erabakiaren berri ematea, hitzarmena sinatu dezan.

SEIGARRENA: Erabaki honen berri Idazkaritza, Ekonomia, Kontabilitatea eta Diruzaintza sailei jakinaraztea.

ZAZPIGARRENA: Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratzeko agindua ematea Kultura eta Hezkuntza Sailari.

ZORTZIGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabaki honen berri ematea.

Endika Etxebarria batzar gelara sartu da.

## 10.- 72583709X NAN ZENBAKIDUN LANGILEAREN EDOSKITZE LIZENTZIA ETA OPOR EGUNAK ORDEZKATZEA ONARTZEA.

### Xedea

72583709X NAN zenbakidun bitarteko udal langilearen edoskitze lizentzia eskaria.

### Aurrekariak

Lehenengoa: 72583709X NAN zenbakidun langileak dagokion edoskitzerako egunean ordubeteko baimena batzea 2025eko otsailaren 13tik martxoak 18ra (biak barne) eta disfrutatu gabeko 2024.urteko oporrak martxoaren 19tik apirilaren 29ra arte (biak barne) disfrutatzea eskatu du.



CSV: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/04/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/04/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/04/2025 15:35:45

DOCUMENTO: 20251221002
Datea: 09/04/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

<u>Bigarrena</u>: Bitarteko udal langileak, edoskitzea eta 2024. urteko oporrak disfrutatu ondoren, 2025eko apirilak 29ra arte sortutako oporrak eta lizentziak disfrutatzeko eskaria egin du.

2025eko apirilak 29ra arte, langileak 9 opor egun eta lizentzia egun 2 sortu ditu, 2025eko apirilak 30etik maiatzak 15era arte.

**Argudioak**

<u>Lehenengoa</u>: Bermeoko Udaleko lan kontratudun lan baldintzak arautzen dituen akordioaren 53. artikuluak honako hau ezartzen du:

> *"2. Hamabi hilabete baino gutxiagoko seme-alabaren bati bularra emateko, langileek egunean ordu bat lana uzteko aukera izango dute, eta erditze anitza izan bada, baimena proportzionalki areagotuko da.*
>
> *Eskubide honen ordez, lanaldi arrunta lanaldiaren hasierako edo amaierako ordu erdia murriztu ahal izango da, helburu berbera izanik.*
>
> *3. Edoskitze artifizialeko kasuetan, lanaldia eteteko edo murrizteko eskubidea amak zen aitak hartu ahal izango du, eta aita izan beharko da aldez aurretik arrazoitutako eskaera aurkeztuko duena; ama langilea dela eta baimena ezin duela hartu edo hartzerik ez duela nahi egiaztatu beharko du.*
>
> *4. Aurreko paragrafoan aipatutako lizentzia hartzeko eskubidea izango du langileak edo, bestela, egunetik egunera zenbatutako orduak batu eta, langilearen egutegiaren arabera, eta amatasun baja bukatu ostean hartu. Eguneko lizentzia ordua hartzen hasi ahal da, eta epe jakin batetik aurrera batzen hasi eta denak batera hartu. Batu daitezkeen orduak gutxienez hilabete bati dagozkionak izan daitezke.*
>
> *…*
>
> *6. Lizentzia honen ordutegia eta epea zehaztea pertsonalari dagokio bere ohiko lanaldiaren barruan; pertsonalak bere ohiko lanaldira itzuliko den eguna baino 15 egun lehenago jakinarazi beharko dio erakundeari.*

<u>Bigarrena</u>: Bermeoko Udala eta bere organismo autonomoetako langileen lan baldintzak arautzen duen 2004. urteko hitzarmenaren bederatzigarren artikuluak ezarritakoaren arabera, emakumezko enplegatu publikoak bere lanaren ordubeteko geldiunerako



CSV: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/04/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/04/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/04/2025 15:35:45

DOCUMENTO: 20251221002
Datea: 09/04/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

eskubidea izango du, **hamalau** hilabetekoa baino gazteagoa den seme-alabaren berezko edospenaldirako edo edospenaldi artifizialerako erabiltzen duenean.

**Erabakia**

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

BAKARRA: Bermeoko Udaleko lan kontratudun lan baldintzak arautzen dituen akordioaren 53. artikuluan ezarritakoaren arabera, 72583709X NAN zenbakidun bitarteko langileak dagokion edoskitzerako egunean ordubeteko baimena, 2025eko otsailaren 13tik martxoak 18ra (biak barne), eta 2024. urteko oporrak martxoaren 19tik apirilaren 29ra arte (biak barne) disfrutatu ondoren, 2025. urteko bederatzi (9) opor eta bi (2) lizentzia egunak, apirilak 30etik maiatzak 15era arte disfrutatzea onartzea.

**11.- 2025. URTEKO ZAHARREN EGOITZAKO MANTENUKO LAN EGUTEGIA ETA ORDUTEGIA ALDATZEA ONARTZEA ETA GAZTE INFORMAZIO ZERBITZUKO 2025EKO LAN EGUTEGIA ETA ORDUTEGIA ONARTZEA.**

Idazkariak ohartu du zaharren egoitzako mantenuko lan egutegia ez dela zehatza, hau da, ez dituela 1.592 orduak betetzen.

**Xedea**

2025. urteko zaharren egoitzako mantenuko lan egutegia eta ordutegia aldatzea onartzea eta Gazte Informazio Zerbitzuko 2025eko lan egutegia eta ordutegia onartzea.

**Aurrekariak**

Lehenengoa: 2024ko abenduaren 30eko 2024/000006779 zenbakidun Alkatetza Dekretuan honako hau erabaki da:

> *Lehenengoa: 2025. urterako Bermeoko Udaleko honako lan egutegi eta ordutegi hauek onartzea:*
>
> - *…*
> - *Egoitzako mantenua*

Bigarrena*:* 2024ko abenduaren 20ko Negoziazio Mahaiko batzarrean honako hau adostu



CSV: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/04/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/04/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/04/2025 15:35:45

DOCUMENTO: 20251221002
Datea: 09/04/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

da:

> *“Presidenteak adierazi du egutegi proposamena gazteria teknikariarekin egindako batzarren ondorioa dela; nahiz eta teknikaria arratsalde batzuetan lanera etortzeko prest egon. Bukatzeko, Presidenteak esan du proposamen zehatzago bat prestatuko dela hurrengo Negoziazio Mahairako eta bitartean luzatuta geratzen dela 2024. urteko egutegia.*
>
> *Gazteria Zerbitzuko 2024. urteko egutegiaren luzapena bozkatuta, onartu egin da, enpresako aldearen aho-bateko baiezko botoa eta alde sindikalaren gehiengoaren baietza (LAB sindikatuaren aldeko botoarekin eta ELA eta ERNE-SPV sindikatuaren abstentzioarekin) egon delako.”*

Hirugarrena: Idazkariak ohartu du egutegietako ordutegiak zehatzak izan behar direla (ez soberan, ez faltan).

**Argudioak**

Lehenengoa: 2024/000006779 zenbakidun Alkatetza Dekretuz zaharren egoitzako mantenuko langilearen 2025. urterako honako lan egutegia eta ordutegia onartu da:

- Neguko ordutegia:
  - 7:00-14:40
- Udako ordutegia (ekainaren 4tik irailaren 19ra)
  - 7:00-13:40

Bigarrena: Egutegi eta ordutegi hau ez da egokia egoitza bezalako espazio zabal bateko mantenua bermatzeko. Urteetan mantenuko langilearen ordutegia, lanaldi zatitukoa izan da, askoz eraginkorragoa baita egoitzan gertatzen diren gorabehera ugariak kudeatzeko:

- ✓ Goizez: 8:30-13:30
- ✓ Arratsaldez: 15:30-17:45

Hirugarrena: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 47. artikuluak



CSV: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/04/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/04/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/04/2025 15:35:45

DOCUMENTO: 20251221002
Datea: 09/04/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

honako hau xedatzen du:

> **"47.artikulua. Funtzionario Publikoen lanaldia**
>
> Administrazio publikoek beren funtzionario publikoen lanaldi orokorra eta lanaldi bereziak ezarriko dituzte. Lanaldia denbora osoz edo denbora-zatiz bete daiteke."

Halaber, negoziazio gaiei buruzko 37. artikuluak honako hau ezartzen du:

> **"37. artikulua. Negoziazio-gaiak**
>
> 1. Administrazio publikoetako bakoitzak dituen eskumenei lotuta, bakoitzak bere eremuan eta kasuna-kasuan legez dagokion irismena izanik, ondorengo zerrendan jasotako hauek izango dira negoziazio-gaiak:
>
> …
>
> m) Hauei dagozkienak: lan-egutegia, ordutegiak, lanaldiak, oporrak, baimenak, mugigarritasun funtzionala eta geografikoa, baita giza baliabideak estrategikoki planifikatzeko irizpide orokorrak ere, enplegatu publikoaren lan-baldintzetan eragina duten alderdiei dagokionez."

Laugarrena: Negoziazio Mahaiak 2025eko martxoaren 27an izandako bileran, honako lan egutegi eta ordutegiak eztabaidatu dira eta euren adostasuna agertu dute aurkeztutako lan egutegi eta ordutegiekin:

- Zaharren egoitzako mantenua
- Gazte informazio zerbitzua

Bosgarrena: 2024ko apirilaren 24ko 1886 zenbakidun Alkatetza Dekretuaren arabera, Tokiko Gobernu Batzarraren ahalmena da lan egutegiak eta ordutegiak onartzea.

**Erabakia**

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: Egoitzako mantenuko eta Gazte Informazio Zerbitzuko 2025eko lan ordutegiak eta egutegiak modu honetan onartzea.

BIGARRENA: Kontuan izanda lan orduak betetzea ezinbestekoa dela, eta langilearen oporraldiaren arabera errekuperatzeko ordu kopurua desberdina izango dela, lan ordutegiaren kontrola egunean izatea



CSV: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

| Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu. Kodea: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3 | Sinadurea eta datea: JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/04/2025 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/04/2025 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/04/2025 15:35:45 | DOCUMENTO: 20251221002 Datea: 09/04/2025 Lekua: Bermeon Erregistro unidadea: Erregistro nagusia |
|---|---|---|

## 2025ko LAN EGUTEGIA EGOITZAKO MANTENUA

**URTARRILA**

| Al | Ar | Az | Og | Or | Lr | Ig |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 |
| 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | | |

**OTSAILA**

| Al | Ar | Az | Og | Or | Lr | Ig |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 1 | 2 |
| 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 |
| 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 |
| 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 |
| 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | | |

**MARTXOA**

| Al | Ar | Az | Og | Or | Lr | Ig |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 1 | 2 |
| 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 |
| 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 |
| 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 |
| 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 |
| 31 | | | | | | |

**APIRILA**

| Al | Ar | Az | Og | Or | Lr | Ig |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 |
| 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 |
| 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 |
| 28 | 29 | 30 | | | | |

**MAIATZA**

| Al | Ar | Az | Og | Or | Lr | Ig |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 1 | 2 | 3 | 4 |
| 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 |
| 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 |
| 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 |
| 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | |

**EKAINA**

| Al | Ar | Az | Og | Or | Lr | Ig |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | 1 |
| 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 |
| 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 |
| 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 |
| 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 |
| 30 | | | | | | |

**UZTAILA**

| Al | Ar | Az | Og | Or | Lr | Ig |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 |
| 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 |
| 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 |
| 28 | 29 | 30 | 31 | | | |

**ABUZTUA**

| Al | Ar | Az | Og | Or | Lr | Ig |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | 1 | 2 | 3 |
| 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |
| 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 |
| 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 |

**IRAILA**

| Al | Ar | Az | Og | Or | Lr | Ig |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 |
| 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 |
| 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 |
| 29 | 30 | | | | | |

**URRIA**

| Al | Ar | Az | Og | Or | Lr | Ig |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 |
| 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | | |

**AZAROA**

| Al | Ar | Az | Og | Or | Lr | Ig |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 1 | 2 |
| 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 |
| 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 |
| 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 |
| 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 |

**ABENDUA**

| Al | Ar | Az | Og | Or | Lr | Ig |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 |
| 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 |
| 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 |
| 29 | 30 | 31 | | | | |

| HILEA | ASTEGUNAK | LAR. | IGAN. | JAIAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| Urtarrila | 21 | 4 | 4 | 2 | 31 |
| Otsaila | 20 | 4 | 4 | 0 | 28 |
| Martxoa | 21 | 5 | 5 | 0 | 31 |
| Apirila | 19 | 4 | 4 | 3 | 30 |
| Maiatza | 21 | 5 | 4 | 1 | 31 |
| Ekaina | 21 | 4 | 5 | 0 | 30 |
| Uztaila | 21 | 4 | 4 | 2 | 31 |
| Abuztua | 20 | 5 | 5 | 1 | 31 |
| Iraila | 21 | 4 | 4 | 1 | 30 |
| Urria | 23 | 4 | 3 | 1 | 31 |
| Azaroa | 20 | 4 | 5 | 1 | 30 |
| Abendua | 21 | 3 | 4 | 3 | 31 |
| | 249 | 50 | 51 | 15 | 365 |
| LAN EGUNAK | 299 | | | | |

| HASI | BUKATU | GUZTIRA | |
|---|---|---|---|
| 8:30:00 | 13:30:00 | 5:00:00 | |
| 15:30:00 | 17:40:16 | 2:10:16 | |
| | | 7:10:16 | EGUNEAN |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | 1785:36:24 | |
| 27 | OPORRAK AL-OR | 193:37:12 | |
| | EGINDAKOAK | 1591:59:12 | |
| | Egin behar | 1592:00:00 | |
| | DIF. | ############### | 0:00:48 FALTA DIRA |



CSV: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

STEMMA PRODERI — IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

Sinadurea eta datea

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/04/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/04/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/04/2025 15:35:45

DOCUMENTO: 20251221002

Datea: 09/04/2025

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

## 2025eko LAN EGUTEGIA GAZTERIA ZERBITZUA

**URTARRILA**

| Al | Ar | Az | Og | Or | Lr | Ig |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 |
| 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | | |

**OTSAILA**

| Al | Ar | Az | Og | Or | Lr | Ig |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 1 | 2 |
| 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 |
| 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 |
| 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 |
| 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | | |

**MARTXOA**

| Al | Ar | Az | Og | Or | Lr | Ig |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 1 | 2 |
| 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 |
| 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 |
| 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 |
| 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 |
| 31 | | | | | | |

**APIRILA**

| Al | Ar | Az | Og | Or | Lr | Ig |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 |
| 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 |
| 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 |
| 28 | 29 | 30 | | | | |

**MAIATZA**

| Al | Ar | Az | Og | Or | Lr | Ig |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 1 | 2 | 3 | 4 |
| 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 |
| 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 |
| 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 |
| 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | |

**EKAINA**

| Al | Ar | Az | Og | Or | Lr | Ig |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | 1 |
| 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 |
| 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 |
| 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 |
| 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 |
| 30 | | | | | | |

**UZTAILA**

| Al | Ar | Az | Og | Or | Lr | Ig |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 |
| 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 |
| 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 |
| 28 | 29 | 30 | 31 | | | |

**ABUZTUA**

| Al | Ar | Az | Og | Or | Lr | Ig |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | 1 | 2 | 3 |
| 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |
| 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 |
| 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 |

**IRAILA**

| Al | Ar | Az | Og | Or | Lr | Ig |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 |
| 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 |
| 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 |
| 29 | 30 | | | | | |

**URRIA**

| Al | Ar | Az | Og | Or | Lr | Ig |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 |
| 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | | |

**AZAROA**

| Al | Ar | Az | Og | Or | Lr | Ig |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 1 | 2 |
| 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 |
| 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 |
| 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 |
| 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 |

**ABENDUA**

| Al | Ar | Az | Og | Or | Lr | Ig |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 |
| 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 |
| 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 |
| 29 | 30 | 31 | | | | |

| HILEA | AL | AR-AZ-OG | OR | ASTEG. NEG. | ASTEG. UDA | BEREZIAK | Errek. | LAR | IGAN. | JAIAK | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Urtarrila | 3 | 13 | 5 | | 0 | 0 | 0 | 4 | 4 | 2 | 31 |
| Otsaila | 4 | 12 | 4 | | 0 | 0 | 0 | 4 | 4 | 0 | 28 |
| Martxoa | 5 | 12 | 4 | | 0 | 0 | 0 | 5 | 5 | 0 | 31 |
| Apirila | 2 | 11 | 3 | 3 | 0 | 0 | 0 | 4 | 4 | 3 | 30 |
| Maiatza | | | | 21 | 0 | 0 | 0 | 5 | 4 | 1 | 31 |
| Ekaina | | | | 5 | 15 | 0 | 1 | 4 | 5 | | 30 |
| Uztaila | | | | | 20 | 0 | 1 | 4 | 4 | 2 | 31 |
| Abuztua | | | | | 20 | | | 5 | 5 | 1 | 31 |
| Iraila | | | | 10 | 8 | | 3 | 4 | 4 | 1 | 30 |
| Urria | | | | 23 | | | | 4 | 3 | 1 | 31 |
| Azaroa | | | | 20 | | | | 4 | 5 | 1 | 30 |
| Abendua | | | | 18 | | 1 | 2 | 3 | 4 | 3 | 31 |
| | 14 | 48 | 16 | 100 | 63 | 1 | 7 | 50 | 51 | 15 | 365 |
| LAN EGUNAK | 242 | | | | | | | | | | |

**URT-OTS-MAR-API**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 16:00:00 | 19:55:00 | 3:55:00 | ASTELEHENAK | |
| 8:30:00 | 15:00:00 | 6:30:00 | | |
| 16:30:00 | 19:00:00 | 2:30:00 | 9:00:00 | AR-AZ-OG |
| 8:30:00 | 15:00:00 | 6:30:00 | OSTIRALA | |

| HASI | BUKATU | GUZTIRA | |
|---|---|---|---|
| 7:00:00 | 14:40:08 | 7:40:08 | |
| | | 7:40:08 | EGUNEAN GUZTIRA NEGUAN |

| HASI | BUKATU | GUZTIRA | |
|---|---|---|---|
| 7:00:00 | 13:41:39 | 6:41:39 | |
| | | 6:41:39 | EGUNEAN GUZTIRA UDAN |

| | | | |
|---|---|---|---|
| 7:30:00 | 12:29:04 | 4:59:04 | BEREZIAK |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | 1784:26:21 | |
| 12 | OPORRAK NEG. | 92:01:36 | |
| 15 | OPORRAK UDA. | 100:24:45 | 192:26:21 |
| | EGINDAKOAK | 1592:00:00 | |
| | Egin behar | 1592:00:00 | |
| | DIF. | 0:00:00 | |

**Abenduak 24, 31** Ordutegi berezia malgutasun barik, bat lanean eta bestea errekuperatuta, beti ere zerbitzua bermetuta

Bi orduko malgutasuna sarreran edo eta irteeran

Berhazen, agenda irekiko da arratsaldeetako hitzorduetarako.
Herritarak astebete lehenago hartuko du hitzordua, horrela teknikariak hurrengo asteko agenda antolatuko du.
Arratsaldeko orduek ez dute aparteko ordurik sortuko, aste bereko goizeko orduekin konpentsatuko dira (1 ordu = 1 ordu)



CSV: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

STEMMA PRODERI · IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/04/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/04/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/04/2025 15:35:45

DOCUMENTO: 20251221002
Datea: 09/04/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

## 12- 53/2025 EPAIAZ BERRI EMATEA.

Tokiko Gobernu Batzarrari, irmoa den 53/2025 dekretuaren berri eman zaio, eta honela dio:

*"FALLO: Estimar el recurso contencioso administrativo presentado por el letrado Jesús María Amunategui Barandika en nombre y representación de M.C.Z.G., M.K.B.Z., O.B.Z., I.B.Z., I.B.Z. y J.B.Z., contra el Decreto de Alcaldía nº 1891/2024, de fecha 25 de abril, que desestima los recursos de reposición presentados, que se declara contrario a derecho y nulo, con los siguientes pronunciamientos:*
*1. Se anula, revoca y deja sin efecto la resolución impugnada, declarando nulas las liquidaciones en los términos expresados en la demanda.*
*2. Se condena al Ayuntamiento de Bermeo a la devolución de lo cobrado, con los intereses legales de demora desde que se abonaron las liquidaciones por los demandantes, hasta la fecha de su devolución, si se hubieran abonado."*

## 13.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMOTEA.

Ez da ezer adierazi.

## 14.- ESKARI ETA ITAUNAK

Ez da egon eskari eta itaunik.

Eta aztertzeko gai gehiago barik, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra goiburuan aitatutako ordu, egun eta lekuan, eta eztabaidatutakoa eta erabakitakoa jasota geratu dadin, nik, idazkariak, agiri hau egin eta izenpetzen dudanak, horren fede ematen dut, lehendakariaren oniritziarekin.

Agiri hau Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazioko zenbakidun paperean jasoko da.



CSV: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/04/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/04/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/04/2025 15:35:45

DOCUMENTO: 20251221002
Datea: 09/04/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Bermeoko Udalaren bilkura hau ikus-entzunezko euskarrian grabatu da "**20250408_TGB.mp4**" izeneko dokumentu digitalean, "**2025eko Apiril 8ko Tokiko Gobernu Batzarra**" aktari dagokionean. Akta hori udal-sistema informatikoan gordetzen da, eta haren osotasuna eta egiazkotasuna bermatuta geratzen dira bilkuraren administrazio-espediente elektronikoari erantsitako dokumentu lektronikoaren bidez, Eta ondorengo Osotasun Kodearekin (SHA-256):

**5587c9e5d6274ca70a8c661b638e6ae5ca565e2eb0a2040b8bf2d68631bcb615**

Euskarri horretan jasota daude bilkuraren eguneroko eztabaidetan parte hartu duten zinegotzien eztabaidak eta bozketak. Akta hau eskuragarri egongo da hurrengo helbide honetako atari pribatuan:

https://bideoakta.bermeokoudala.eus/bermeo/pribatua/

*Orri oinean sinatzaileak eta datak*



CSV: 07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012A18A00H7Y4R7K3P5S3

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/04/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/04/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/04/2025 15:35:45

DOCUMENTO: 20251221002
Datea: 09/04/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia